




Nazionalismoari buruzko berrogeita hamar egia deseroso

PATXI LOPEZ DE TEJADA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES

nazionalismoari buruzko
berrogeita hamar egia
deseroso

*Nationalism does nothing but teach you to hate people you never met,
and to take pride in accomplishment you had no part in.*

Doug Stanhope

Bihotzezko eta legezko herrigabeei.

Hitzaurrea

Nortzuk gara? Nondik gatozen, nora goazen edo hemen zer egiten dugun baino lehen hori da aurreneko galdera. Eta erantzuteko eskura daukagun baliabideak ez dira asko: norekin bizi garen, zein familiatan edo inguruan gauden, noren antza daukagun, nortzuek gure hizkuntza eta gure modura edo gure azentuz hitz egiten duten, nortzuk propio sentitzen ditugun edo sentitzen gaituzten. Nortzuk ez.

Arimaren inklinazioez Parazelsok sustantziez zioena esan genezake, sendagairen eta pozoiairen arteko alde bakarra kopuruan datza, eta gehiegizkoa, ideiei dagokionez fanatismoa hain zuzen ere, ez da ona izaten.

Postmoderno hutsalek emozioak kudeatu egin beharra dagoela diote, baina agian garrantzitsuagoa izan daiteke norberaren kontraesanak kudeatzea, hau da, horiek ezagutzea, aitortzea, orekatzea eta, ahal bada, bideratzea. Segururena ez dugula ondo orekatzen edo bideratzen asmatuko, baina ahaleginak merezi izango du eta aldatu egingo gaitu.

Zeren eta, joka dezagun zintzo, gaurko egunean nor ez da nazionalista hein batean edo bestean?

Mito zaharretan zein egungo fabuletan istorioaren esanahia errepikatzen den arren maiz ez da agerikoa edo ez dugu ulertzen edo ohartzen: xedea lortzeko bidean egiazko ordaina ez da helburura iristea edo saria lortzea, prozesuan heroia bera zenbaiteraino (hoberako, espero dezagun) aldatu den baizik, nolatan hazi den, heldu den, ondu den, gogortu den, samurtu den.

Ba al dago ezagutza bidaia batean abiatzea eta osorik eta berdin iristea? Zorionez ez, ez dago, ez gai honetan ez inolako bestean.

Nazionalismoak XIX. mendean iritsi ziren gurera (gizakion etxea den mentalitatera) eta oraingoz hemen daude, beraz garrantzizkoa eta premiazkoa suertatzen da beraiekin elkarbizitzen ikastea nazionalistak besterik ez izaten bukatu nahi ez badugu, sen on ororen aurka.

Behartuta al gaude orduan gehiegizko nazionalismoaren arriskuaren aurka txertatzeko edo perspektiba apur bat hartzeko? Ez dakit ba, bizitzan norberak bere kasa ikasi beharreko edo egin beharreko bide horietako bat delakoan nago, ez dugulako ohi onartzen beste baten aholkuak edo irakaskuntzak arlo horretan.

Are gehiago, nire eskarmentuaz esan dezakedana zera da, irainduak edo minduak izateko (gure hipersentiberatasunaren aroan ere) gaitasunak gure aurriritzien tamainaren eta gezurrak jateko eta irensteko izan dugun erraztasunaren neurriaren berri ematen duela ez beste ezerena, geure segurtasun gabezia hain zuzen ere.

Nahi dugun eran pentsa edo esan dezakegu, baina multzo sentitzeko beharra ez da gizakiak daukan onenetakoa.

1.- Europar eta Ekialde hurbileko biztanle guztiok zazpi emakumeen herenilobak gara.

Bryan Sykes genetista britainiarrak zazpi emakume horiei jarri zizkien ezizenak (bakoitzaren haplotaldearen arabera) Helena, Jasmine, Katrine, Tara, Ursula, Velda eta Xenia dira, eta dna mitokondrialak erakusten du denok Europan, europar biztanleriak populatutako lurretan eta Ekialde hurbilean zazpi andre haien ondorengoak garela.

2000 eta 2020 urteen artean laborategi bat egon zen Oxford-en, Oxford Ancestors izenekoa, lagin organiko bat bidali ezkeru dna mitokondrialak aztertzen zuena eta Europako edo Ekialde hurbileko pertsona bakoitza zazpi andre horietatik zehazki noren hereniloba zen esatea zeukana.

Sykesek ere beste hogeita bederatzi 'klanen amak' identifikatu zituen genetikoki munduan zehar.

Are gehiago, Eva mitokondrialaren hipotesi zientifikoaren arabera planetako gizaki guztiok Afrikan orain dela berrehun mila urte bizi ziren mila hominidoen ondorengoak bagara.

2.- Ez dago hizkuntzarik bata bestea baino zaharragoa denik, ezta kulturarik besteak baino zaharragoa denik ere.

Gizakiok planeta hau bi hankekin zapaltzen hasi ginenetik kultura egon da, eta oraingoz jakiterik ez dagoen arren antza denez ezin da esan kultura bat edo hizkuntza bat besteak baino zaharragoak direnik. Hizkuntzen bilakaeran ama-hizkuntzen eta alaba-hizkuntzen arteko edota dialektoen eta hizkuntzen arteko banaketa konbentzionala eta akademikoa da, eta beraz ez dago hizkuntza edo kultura bat beste bat baino zaharragoa denik zentzuz esaterik, funtsik gabeko harrokeria hutsala baita.

3.- Arrazek ez daukate inongo estatus zientifikorik.

Gizakion biologian arrazek ez daukate inongo estatus zientifikorik, irizpide biologikorik ez dagoelako gizakiak arrazetan sailkatzeko beste animalien edo landareen gisara. Bestela, Afrikatik etorritako egungo beltzak salbu (jatorri batean denok izan ginen Afrikatik etorritako beltzak han bizi ziren mila hominido haiengandik gatozelako, eta gizakion itxura guztiek ingurugiroaren araberako aldaketak islatzen dituzte besterik ez), Sapiens Sapiens huts bakarrak direlarik, gainontzeko guztiok biologikoki Sapiens Sapiens eta neardentalen arteko (azken espezie horri zor diogun zatia gehienetan ehuneko 1,5 eta 2,1 tartean egonik) gurutzaketa bat gara.

4.- Mundu honetan ez dago estatu bakar bat etnizitate bakarra duenik.

Nazio Batuetan ordezkaritza daukaten ia berrehun estatuetatik ez dago bakar bat etnikoki homogeneoa denik, eta egongo balitz ere kanpoko bidaiariak eta langile atzerritarrak izango lituzke. Izan ere, estatu monoetniko oso gutxi daude munduan, Japonia edo Hegoaldeko Korea batez ere, eta horien kasuan ere gutxiengo etnikoak badaude (korearrak eta ainuak Japonian eta txinatarrak Hegoaldeko Korean).

Aniztasun etnikoa eta kulturala ez da beraz aberastasun bat bakarrik, estatu modernoek ezaugarri orokor bat baizik. Nazionalismoa nazio etniko bakoitzaren bere estatu propio eratzeko eskubidea aldarrikatzen duen ideologia bezala ulertzen bada (Cavour-ek adierazten zuen moduan) mundu honetan ez da inon gauzatu.

5.- Nazionalismo guztiak XIX. mendean sortu ziren liberalismoaren eraginez.

Joxe Azurmendik nazionalismoa Europa bezain zaharra dela iradokitzen duen arren (hasteko Europa hitzarekin zer ulertzen dugun zehaztu beharko genuke, beharbada erabiltzen dugun kontzeptua ere ez delako batere zaharra), hor non kolektibitatearen batek lan harro bat egin duen zerbait identitarioren eta aurrenazionalistaren arrastoa ikusiz edo ikusi nahian, aldizkako liskar erlijioso eta etnikoez aparte Antzinako Erregimenean ez zegoen nazionalismorik, eta nazionalismoak XIX. mendeko liberalismoaren eta iraultza burgesen ondorio eta fruitu izan ziren ideologia bezala. Hori baino lehen lurralde bat populatzen zuen biztanleriaren jabetza izan zitekeelako esan edo aldarrikatzen zuen diskurtso politikorik ez zegoen, ordura arte lurraldeak beren subiranoen eta monarken ondarezko jabetza partikularra zirela uste baitzen, besterik gabe.

Izatez, subiranotasun nazionalaren kontzeptua monarkek haien arteko itunen bidezko lurralde trukaketak eta opariak galarazteko garatu zen, lurraldeei buruzko erabakiak bertan bizi zen herriak hartu behar zuela erreibindikatuz eta aldarrikatuz lehenengo aldiz.

6.- Historiak erakusten du orokorrean inperioak toleranteak izan direla gutxiengo etniko eta linguistikoekin, eta nazio-estatuak berriz intoleranteak izan direla.

Inperioek Antzinatetik badakite herrialde eta jende desberdinak gobernatu nahi baldin badituzte, egonkorra izateko asmoa duen erakunde edo egitura baten edo batzuen bidez, desberdintasunekin toleranteak izan behar dutela eta ez dutela kultura edo hizkuntza bat denei uniformeki inposatu behar, eta hori bera izan da orokorrean beren jarduna historian zehar.

Inperio erromatarrek ez zuen inoiz latina ikastea inposatu agintzen zituzten herrietan. Askoz zorrotzagoak eta adimentsuagoak ziren erromatarrek gai horretan baita gainontzeko gehienetan ere. Bertako erlijioak (jainkoak ere maiz bere egiten) erakundeak eta eliteak errespetatzen zituzten, baina eragiten zuten begi bistako garapen orokorraz, azpiegitura erraldoiak eraikiz, zuzenbide zabal bat aplikatuz eta villak eta hiriak altxatuz, argi uzten zuten zibilizazio aurreratu bat zirela. Bertako eliteak goiz ulertzen zuten hobera jotzeko modu bakarra hiritar erromatar bihurtzen saiatzea zela eta aurreratuagoa zen zibilizazio horretan parte hartzeko, eta horretarako latina ikasten zuten gogo onez, eta beraien semeak ikastera bidaltzen zituzten, ez zegoen ezer inposatu beharrik.

Monarkia hispanikoa inperio planetarioa izan zen garaian, XVI. mendetik XVIII. mendera arte, Iberiar penintsula erresumen eta jaurren konfederazio bat izan zen (frankismoaren eta ondorengo aretoko progreen iraganari buruzko fantasia sasi historiko guztiak direnak direla) erregearen edo enperadorearen pertsona bakarrak batzen zituena, beraien arteko beste loturarik gabe, eta gobernu sistema polisindal baten bidez gobernatzen zituena.

Inperio Otomandarrek mendeetan zehar sarraski ugari egin zituen arren, Turkia nazio-estatu bezala eratu eta berehala egin zuen bi milioi armeniarren genozidioren antzekorik ez zuen inoiz egin bere aurreko historia osoan.

Alderantziz eta orokorrean Inperioak ez bezala nazio-estatuak XIX. eta XX. mendean zehar mugen barrualdera zeuzkaten gutxiengo etniko eta nazionalak asimilatzen jo eta su saiatu dira, eta lortzen efektibo samarrak izan dira lau tresna nagusiekin: soldaduska, kodifikazio legala, administrazio sistema modernoak eta heziketa sistema nazional baten eraketa zeinetik ume eta gazte guztiak pasa behar baitziren.

Nazionalismo askatzaileak, ustezko nazioen edo herrien zapalkuntza salatzen dutenak, eta horien askapenerako kontzientzia nazionalari ernatzearen bidez egitea planteatzen dutenak, joera inperialistak leporatzen diete zapaltzen dutenei, baina gehienetan ez dira joera inperialistak izaten, nazio-estatuko joerak eta politikak baizik, esan bezala inperioak orokorrean askoz ere toleranteagoak izan direlako.

7.- Nazionalismoek historian justifikatu ohi dute beren diskurtsoak, baina erabiltzen dituzten kontakizunak eta gertakari historikoak gehienetan gezurrezkoak eta maneiatuak izaten dira.

Giza-kulturak gezurren gainera eta gezurrez osatzen dira beti (sentiberen omenez gezurrak mitoak eufemismoarekin izen ditzakegun arren), baina identitate nazionalisten asmakuntzan eta eraikuntzan gezurrezko kontakizunen garrantzia funtsezkoa da, muinezkoa. Ernest Renan-ek nazionalismo guztiek beren historia faltsutu egiten dutela zioen. Hona hemen zenbait adibide:

Euskal abertzaletasunari dagokionez, Euskal Herria erromatarrek inbaditu zuten inguruko herri guztiak bezala, herri bereziki erromanizatu bilakatu zelarik. Euskaldunak erromatar armadan sartu ziren eta borrokatu egin zuten besteak beste Britanian. Erromatarrek euskaldunei itsasoan nabigatzen irakatsi zieten, arrantzan egiten, baleak harrapatzen eta baleak eta arrainak prozesatzeko gutxienez bi herri sortu zituzten, bi Getariak (cetaria), Lapurdikoa eta Gipuzkoakoa. Beste euskal herri eta hiri askoren artean, bi euskal hiriburu fundatu eta eraiki zituzten, Baiona eta Iruña -Pompaelo-. Horrez gain, kristautasunaren aurreko euskal mitologiatzat hartzen ditugun sinesmen gehienak erromatarrek ekarritakoak dira (lamiak, Tartalo -Polifemo-...), eta latinaren eragina euskarari itzela izan zen.

Erromatarrek iritsi baino lehen euskaraz egiten zuten multzoek ez zuten herri bat osatzen, inondik inora, Burdin Aroan medien eta muinoen tontorretan herrixka harresidunetan bizi ziren talde txikiak baizik, baldintza oso latz eta astunetan (egunero gailur horietara ura, janaria eta egurra eramanez beharrez), eta baiaretarak eta ibaien bazterretara bizitzera jaisten ausartzen ez zirenak elkarri beldur zirelako, elkarrekin etengabeko gatazka batean murgilduta zeudelako eta elkar erailtzen eta lapurtzen. Erromatarrek iritsi arte ez ziren euskaldun jendeek haranetara jaitsi, galtzadak, villak eta herriak eta aurre hiriak eraikitzen, eta bakeak eta elkarrekin kolaboratzeak eta taldeen arteko auzolanak dakartzaten onurak ikusi eta ikasi.

Bestaldetik, Erdi Aroan Gaztelak ez zituen Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia inbaditu nafarrak garaituz eta lurralde horiek kolonizatuz, aldiz herrialde horiek Nafarroako erresuma ingurukoekin erkatuta txiki eta ahul geratzen hasia zela eta gainbeheran sartua zela ikusi zutenean, indartzen eta nagusitzen hasia zen Gaztelako erresumaren aldera pasa ziren beraien borondatez, eta Gaztelako erregearekin itun foralen bidez nahita eta gogo onez elkartu ziren, Nafarroako erresumari bizkarra emanez. Zehaztu beharra dago baita Nafarroako erresuma Aragoikoarekin batuta egona zela iraganean, 1512an Gaztelak inbaditu baino askoz lehenago, Nafarroako errege gehienak ez zirela euskaldunak izan, eta erresuma burujabearen garaian Nafarroako erakundeen hizkuntza ez zela euskara izan, latina eta gaztelera baizik.

XIX. mendean foruen aboliziorako eta asimilaziorako aitzakia euskaldun batzuek eman zuten gerra karlistekin, eta gerra horiek ez ziren Euskal Herriaren askapen gerrak izan (Agosti Xahoren fantasia guztiak direnak direla) gatazka dinastiko baten bidez lehertutako espainiar integrismo politiko eta erlijiosoaren aldeko gerrak baizik. Gerra horiek bata bestearen atzetik galdu zirenean soilik ausartu ziren Madrilgo erregina eta Espainiako gobernuak abolitzera, bidegabekeria huts

batez euskaldun guztiak foruen galerekin berdin zigortuz, karlistak, liberalak -agian gehiengoa osatzen zutenak, eta karlistak bezain foralistak zirenak orokorrean- eta gainontzeko guztiak.

Bide batez esanda, euskal abertzaletasun bera ez dator integrismo politiko edota erlijiosotik (Sabino Aranaren sublimazio autobiografiko guztiak direnak direla), esan bezala liberalismotik baizik gainontzeko nazionalismo guztiak bezala.

Esan beharra dago ere bai Espainiako gerra zibil gehienak euskaldunen arteko gerra zibilak izan direla ere, Nafarroaren konkistatik (hein handi batean gipuzkoarrek lagunduta) 1936-1939kora arte, Karlistada guztiak barne.

Nazionalismo espainiarrari dagokionean, Espainiako erresuma ez zen osatu eta eratu nazio-estatu bat bezala XIX. mendera arte, batzuek erromatarraren garaian Iberiar penintsulan zeuden hiru probintzietan protonazio bat ikusi nahi badute ere (eta ikusteko gogo galantak behar dira garai haietan aurrekariak bilatzen ibiltzeko). Viriato lusitaniarra zen eta Numantziakoak pelendoniarrak eta arebakoak ziren, heroitzat jo nahi baldin badituzte ez ziren inondik inora espainiarrak ez bata ez besteak.

Nafarroa ez zen gogoz Gaztela eta Aragoirekin batu, bortzaz inbaditu zuten baizik, eta XIX. mendera arte Espainia ez zen inoiz estatu unitario bat izan federazio edo konfederazio bat baizik, ordura arte osatzen zuen lurralde bakoitzak berariazko moneta, neurriak eta sistema fiskalak erabiltzen zituelarik.

Gaztelera hizkuntza latinaren dialekto bat da beste askoren artean eta nazio espainiarraren ardatza katolizismoa dela esatea iruzur bat da, egun biztanleria ez erlijiosoa eta aldi berean espainiarra bezala definitzeak frogatzen duen moduan.

Francoren diktadurak barne oposizio ñimiñoa izan zuen berrogei urtetan, Franco hil ondoko biharamunean mundu guztia betidaniko demokrata jator bezala esnatu omen zen arren.

Nazionalismo frantziarrari edo chauvinisme-ari dagokionez, Joana D'Arc ezin zen frantziar nazioa askatzeko matxinatu bere garaian -Erdi Aroan- naziorik ez zegoelako inon, eta saintua izendatu bazuten ere buruzagi militar odoltsua eta krudela izan zen, eta ez zuten ingelesek sutan erre bertako Eliza katolikoak baizik, ustezko herejea izateagatik.

XX. mendearen hasieran Frantziako biztanleriaren erdiak ez zuen frantsesez egiten eta egoera hori derrigorrezko soldaduskarekin (Lehen Mundu Gerran batik bat) eta heziketa nazionalarekin aldatu zen bakarrik.

Nazismoaren aurkako erresistentzian gutxi batzuek hartu zuten parte (proportzioan agian Euskal Herrian ETAn ibili zirenak baino gutxiago) eta biztanle gehienek okupatzailearekin kolaboratu zuten.

Nazionalismo ingelesari dagokionez Ziklo Arturikoko kondairak ez dira ingelesak, zeltiarrak baizik. Robin Hood elezaharrei buruz, Robin Hood bera lapur bat zen, Joanes Lur Gabea ez zen tirano bat Europako lehen konstituzioa kontsidera daiteken sinatu zuen errege nabarmena baizik (Carta magna), eta ez zuen herria zergekin zapaltzen aberasteko, bere ama Leonor Akitaniakoak presionatuta herriak samintasunez gogoratzen zuen Rikardo Lehoibihotzaren erreskateak ordaintzeko baizik. Rikardo Lehobihotza aldiz idealizatua izan arren gerlari aparta izan omen zen, baina ez zen errege ona izan, oso denbora gutxi eman zuen Ingalaterran, ez zekien ingelesez eta

zendu zenean, gorpua zatitu eta zati guztiak gaur egungo Frantziako toki askotan lurperatu zituzten.

Lehen eta Bigarren Mundu gerretan garaipena behin eta berriro bindikatu arren (eta gaur egun oraindik urtero ospatu arren) Britainia Handiak ez zuen ardura nagusia izan ez gudan ez aliatuen garaipenean ere.

Amerikako errepublikei dagokionez, Estatu Batuak barne, nahiz eta bertakoen izenean independentzia altxamenduak eta gerrak hasi, jarraitu eta garaitu, matxinatuak eta errepublikak eratu eta gobernatu zituzten gehienak kreoleak ziren goitik behera herri guztietan, beren interesen alde jotzen zutenak eta ez indigenenean (ustez haien izenean borrokatu erretorikoki aldarrikatzen zuten arren). Izan ere, independentzia gerra haietan Amerikako indigena gehienak Inperio europarren alde borrokatu egin zuten kreole independentisten aurka, eta errepublika burujabe kreole berriak eratu zirenean haietako gobernu berriak eta bere ondorengoak gogorragoak eta krudelagoak izan ziren ia beti indigenak eta beraien kulturak zapaltzen Inperio europarrak izan zirena baino.

Planetako nazionalismo orok justifikatzeko sortu eta hedatu dituzten gezurrezko kontakizun edo elezaharrak azaltzeko entziklopedia oso bat beharko zen, eta aurrekoak adibide batzuk besterik ez dira.

Ez dago ezer historian nazio bat egotea edo ez egotea justifikatzen edo eusten duenik biztanlego edo gizakien talde baten borondateaz aparte, eta azken hori maila politikoan bakarrik.

8.- Nazio bakoitzaren ezaugarri berezko gehienak mestizajearen fruitu dira.

Saltzen dizkiguten nazio ia guztiek erakunde beretsuak izateak edota izan nahi izateak susmoa ernarazi beharko luke: tximu imitatzailerak gara gizaki denok, besterik ez. Nazionalistek nazioa defendatzeko erabiltzen dituzten argudioak, baloreak eta ikonografia identitarioa nonahi berdinak edo oso antzekoak izateak zera frogatzen du, nazio bakoitzak omen dauzkan ustezko esentzia paregabeak ez direla egiazki bereziak, eta diskurtso nazionalista eratze baliabide eta elementu berberak erabiltzen dituztela leku guztietan, edo beste era batera esanda, nazionalismoak planetako lau puntu kardinaletan behin nazio baten ideia eta subjektu bezala asmatu eta planteatu duela (beti asmakizun mental hutsa izanik zenbait datu objektibotan - hizkuntza, geografia, lotura historikoren bat, erlijioa...- oinarrituta egon arren), behin janzten dituzten arropa berdintsuak kenduta, geratzen den nazio kontzeptu bakoitza horren ezaugarri berezien edo esentzia desberdinen ezaz biluzik eta berezitasun esentzialik gabe agertzen da.

Diren eta izan diren giza-komunitate guztiak odolaren (gizakion ugalketa ez dago geneen nahasketarik gabe gertatzerik oraingoan) eta ohituren etengabeko konbinazio eta gurutzaketatik datozen, eta ez dauka ezein taldek ezer benetan propio edo orijinalik.

9.- Gutxiengo nazionalak estatuez zapalduak izatea salatu dute ia beti, baina bere baitako gutxiengoei beren kultura eta hizkuntza inposatzen saiatu dira gehienetan.

Nazionalismoa bi adar nagusitan sailkatu ohi da: nazionalismo askatzailea, horrela deitzearen, zapalduta dagoen ustezko nazio bat baldintzapen arrotzengatik libratzea defendatzen duena, eta nazionalismo harroa edo inperialismoa, horrela deitzearen, dagoeneko libre den edo estatu bat daukan ustezko nazio bat besteen gainetik gailentzea (arlo kulturallean soilik bada ere) bilatzen duena.

Lehenengoaren kasuan (bigarrengoan ere batzuetan) askatu behar den nazioak pairatzen dituen zapalkuntzak eta inposaketa kulturalak bilakatzen dira diskurtsoaren ildorik zorrotzenak, munduarentzat zer larria litzatekeen inposaketa kultural horien ondorioz kultura berezi eta aparta bat galduko balitz gogoratzearekin batera.

Halere, esan bezala, ez dago mundu honetan nazio homogeneousorik, eta beraz etnia gutxituen baitan azpi gutxiengoak ere badaude ia beti, kultura handiekin lotuta dauden gutxiengoak barne, eta askapen mugimendu nazionalistaren horiekiko joera ez ohi da ulerkorra izaten zapaltzailea baizik, askatzen ari omen den ustezko nazioaren kultura inposatuz.

Are gehiago, kultura gutxitu horiek eta beraien hizkuntzak gainbeheran sartzen direnean disolbatzeko edo desagertzeko arriskuan sartu arte, eta batzuetan desagertu arte (hori delarik kultura guztien eta gizaki guztien eta giza kontu guztien patua, desagertzea, bide batez esanda) ez da gehienetan zapalkuntzaren, debekuen edota asimilazio politika aktiboen ondorioz, bertako herritarrek horrela nahita baizik, garapen pertsonalaren hautua eginez kultura handiagoen eta zabalagoen hizkuntza ikastea eta erabiltzearen, eta kultura onartzea eta imitatzearen aldeko hautua egiten dutelako, horretarako eskubide osoa izanik hautu horiek pertsonalak direlako.

Erretorika biktimista ororen azpitik hori baita gehienetan errealitatean gertatutakoa, eta nazionalistek badakite, beraien diskurtsoen xedea zapaltzaileak toleranteagoak izateko konbentzitzea baino bertakoak kontzientziatea, mobilizatea eta arduratzea delarik, praktikoak izan beharrean beraien kultura 'esentziala' eta hizkuntza kuttuna zaintzeko eta ez abandonatzeko, eta kasurik onenean besteak integratzeko, eta gogoz egin nahi ez dutenean estatua edota botere publikoa eskuratzearen bidez inposatzea.

Hau da, iraganean ustez gertatutako inposaketa bat (gehienetan erreala izan ez dena, hautu pertsonalen metaketa orokorraren ondorioak baizik) konpentsatzeko kontrako zentzuko inposaketa berri bat ezartzen dela, kasu honetan oso erreala izaten dena.

Salbuespenak salbuespen, nazionalismo guztiek multikulturalismoaren eta globalizazioaren aurka egin dute eta egiten dute gehienetan.

10.- Estatu bat lortzeak ez du hizkuntza edo kultura gutxitu bat bizirautea bermatzen.

Israelgo kasua oso esanguratsua da, zalantzarik gabe, munduko bazter guztietatik etorritako jendeak lurralde batean elkartu izana estatu berri bat eratzeke asmoarekin, eta beren erlijioak eta nazionalismoak (sionismoa) bultzatuta bi mila urte ia hilda zeramatzan hizkuntza bat berpiztu izana eta hizkuntza ofiziala zein mintzaira herrikoia eta literarioa bihurtu izana, hebraiera. Miresgarria benetan, eta hunkigarria.

Baina arrakasta kasu batek ez ditu besteak, gehiengoa, estaltzen. Estatu oso bat tresna edo baliabide bezala alde izateak ez du hizkuntza edo kultura gutxitu bat indarberritzea, bizkortzea edo bizirautea bermatzen. Irlandan irlandararen ezagutza mailak igo dira 1922ko independentziaz, baina erabilera asko jaitsi da pasa den mendean estatu propio bat alde izan arren. Aljerian 2024an biztanle gehiagok egiten zuten frantsesez egunero hizkuntza bezala 1962an independentzia lortu zutenean baino.

11.- Banderak, mugak, estatuak eta gobernuak izaki mental hutsak dira, besterik ez, naturan ez dira existitzen.

Noizean behin zer den erreala eta zer ez den erreala bereiztea komeni da, baita bereizten ez ahaztea ere. Banderak, ereserkiak, mugak, harrotasun eta harrokeria kolektiboak zein banakakoak, arrotasun sentimenduak eta gobernuak, legeak, erakundeak eta estatuak ere gure buruaren barruan existitzen dira, ideien munduan horrela esatearren, ez beste inon. Ez daude naturan eta gizakion irudikatzeetatik haratago ez dute inolako izanik, inolako entitaterik.

Nazio batean egon beharra edo identitate nazional baten beharra, esan bezala sentimendu moderno samarrak izateaz gain, ez dira behar naturalak eta ez dira inoiz izango, gogoan sartutako eraikin kultural artifizialak dira.

12.- Nazionalismoak iragana idealizatzeko eta etorkizunari buruz eszeptikoa izateko joera nabarmena agertu ohi du, eta beraz ideologia ezkortzat eta pesimistatzat har dezakegu orokorrean.

Gure mentalitateari buruz ondo ezagutzen ez dugun arrazoiren batengatik paradisu galdu bat asmatzea eta gabeziarengatik nostalgia zentzugabea sufritzea funtsezkoa da diskurtso nazionalistetan. Jakina idealizatutako paradisu hori ez dela inoiz inon existitu bere ustezko galera deitoratzen dutenen buruetatik kanpo, iraganean jaioberri gehienak hiltzen baitziren, bizi itxaropena askoz laburragoa zen, goseteak, izurriteak eta gerrak izugarriak eta etengabeak ziren, pobrezia, analfabetismoa eta bortizkeria eguneroko errealitate orokorrak ziren eta bizitza gure belaunaldikoarekin erkatuta miserablea zen oro har, baina egia biribil eta ageri horietako ezeinek ezin dio nazionalista bati galdutako paradisuaren irudia burutik kendu, urrezko garai batena non maitatutako ustezko herria libre eta zoriontsu omen zen eta bere bidea egiten omen zuen beste herriek merezi zuen errespetu naturalaz ondartzan zuten bitartean.

Idea eta irudi horren ondoriozko balorazioak ez dira igartzen zailak: orainaldia gainbeherako garai ilun bat da eta ez dago argi etorkizunak ezer onik ekarriko duenik, behar dena egiten ez badugu historiaren jarioa berriro dagokion bidean sartzeko noski. Modu horretan joera ezkorrak eta eszeptikoak zabaltu egiten dira, gizartearen aurrerapen eta garapen prozesu geldia eta aberaste jarraia ikusi nahi ez dituztenak.

Hori zentzugabea badirudi ere, are gehiago etorkizunerako eta aurrera egiteko zerbait proposatzea espero daitekeen mugimendu politikoengan, gogoratu beharra dago nazionalismoa irrazionalismo erromantikoaren ondorengo bat dela, eta politikaren foko distiratsuen, irribarre zabalen eta itxurazko oldarren atzetik ezin duela kutsu ilun hori gainetik kendu.

Erretorika publikoa arranditsua izan daiteke eta herri hautatuaren bertuteenganako fedea itsua, baina nazionalismoak nostalgiaren gaitza edo madarikazioa pairatzen du zainetan, ezinezkoarekiko hasperen amaiezina. Ezinezkoa lehenik fabulatutako paradisu galdua ez zelako inon inoiz existitu, eta bigarrenik existitu izan balitz ere ezin delako iraganera itzuli.

Egia da halaber nazionalistek maitatutako nazioaren ustezko nagusitasuna edo parekotasuna nazioen arteko lehian erakusteko beharra sentitzen duten aldetik nazionalismoa garapen soziala, ekonomiko eta kulturala bultzatzeko eragile nabarmen bat bihurtu daitekeela arlo politikoan, eta sarritan hori dela gertatu dena, eta agian amets helezin bat gogoan izatea horretarako lagungarria izan dela eta izaten jarrai dezakeela ere, baina etorkizuna konplexurik gabe eta itxaropenez begiratzea beste ideologiek egiten duten moduan ere (kontserbadoreen salbuespenarekin beharbada) ez da garapenerako arazo bat izaten.

13.- Nazionalismoak ideologia biktimistak izan ohi dira.

Nazionalismoa definitutako herri edo nazio hautatuaren historiari buruzko kontakizunak ekoizten hasten denean beste herriek eragindako kalteak proportzio itzelekin eta izugarriekin deskribatu ohi dira, sekula bertako 'zintzoen' aldetik inolako ardurarik aitortu gabe, eta loriatutako herriak edo nazioak beste herriei eragindako kalteak isilduz edo garaipen bikainak bezala goraipatuz. Galtzaile kutsua ematen zaio historia propioari dena dela, galtzailearen prestigioa eskuratu nahian edo, baina porrota ez da aurkezten joko garbiaren ondorio bat bezala, beste herrien azpijokoengatik eta maltzurkeriengatik gertatutako zerbait bezala baizik (gureak beste guztiak baino askoz hobeagoak ziren arren besteek ez zuten garbi jokatu eta engainatu egin zituzten...), eta ildo horretatik, ustez galdutako ohorea eta duintasuna berreskuratzeko, ideologia nazionalista tresna beharrezkoa eta salbatzailea bezala proposatu egiten da.

14.- Nazioen ikurrek antzinakoak izan nahi dute baina XIX.

mendean asmatu zituzten gehienak.

Ikurrina 1894an sortu zuten Aranatarrek, Eusko Abendaren Ereserkia edo 'Gora ta gora' ren hitzak 1902an idatzi zituen Sabino Aranak doinu herrikoi bat erabiliz. Gernikako arbola Jose Maria Iparragirrek eta Juan Maria Blas Altunak idatzi zuten 1853an.

Frantziako bandera hirukoloreduna 1794an sortu zuten oraingo itxuran, Iraultza Frantsesaren giroan, baina 1848tik soilik bihurtu zen behin betiko Frantziako bandera. La marsellaise Rouget de Lislek sortu zuen 1792an testuinguru berean, Chant de guerre de l'Armée du Rhin jatorrizko izenarekin, baina ez zen ereserki nazionala bihurtu 1879a arte.

Gorri-horia 1843an bihurtu zen Espainiako bandera nazionala (aldez aurretik gerrako marinako bandera izandakoa zen) eta Errege martxa edo Marcha granadera ereserki nazionala da 1770tik, zaharrenetakoa izanik.

Union Jack 1606tik da Erresuma Batuko bandera da, munduko zaharrenetakoa izanik eta Ingalaterrako, Irlandako eta Eskoziako banderen konbinazio ikonikoa delarik. God Save the Queen edo the King ereserki nazional bezala 1745tik erabiltzen da, ofiziala ez izan arren, zaharrenetakoa izanik ere.

Italiako hirukoloreduna 1796an sortu zuten Iraultza Frantsesaren eraginez, baina 1861an bakarrik bihurtu zen bandera nazionala. Canto degli italiani Michele Novarok konposatu zuen 1847an, 1946an bihurtu zen behin behineko ereserki nazionala eta 2017an behin betiko ereserki ofiziala.

Alemaniko hirukoloreduna ikasle batzuek sortu zuten Jenan 1817an, baina ez zen bandera nazionala bihurtu 1848ko Iraultza arte eta ofiziala izan da tarteka. Das Deutschlandlied August Heinrich Hoffmann von Fallerslebenek idatzi zuen 1841an Haydnk 1797an konposatutako doinu bat erabiliz, eta 1922an bihurtu zen ereserki nazionala.

Suitzako bandera 1889an onartu zen, Irlandakoa 1848an erabili zuten lehenengo aldiz protesta nazionalistetan, Norvegiakoa 1821an onartu zuten, Greziakoa 1969 ofiziala bihurtu zuen koronelen diktadurak ordurarte marinak bakarrik erabiltzen zuena. Errumaniako banderak 1848an jatorria dauka (ikusten den bezala 1848ko Iraultzak, 'Herrien udaberria', Europako ikur nazionalen ugariren iturria da, Iraultza Frantsesaren itzalpean -eta 1820ko eta 1830ko Iraultzaileei jarraipena emanez- kontinente zaharreko herrialde dezentetan sentimendu nazionalen eta 'kontzientzia nazionalaren' pizkunde eta loraldia suposatu zuelako), Turkiakoak 1793an, Japoniakoa 1870an, Bulgariakoa 1879an, eta Jugoslaviakoak 1922tik 1992ra iraun zuen.

Eta abar, gainontzeko gehienak berantiarragoak izanik oraindik.

15.- Nazioak ez dira historikoki lehenengo talde identitate erreferenteak, aurretik familiak, tribuak, klanak eta gens-ak egon ziren.

Nazioen identitateak Aurrehistoriaraino maiz modu barregarri batez proiektatzen saiatzen garen arren, nazioak erreferente moderno samarrak dira historian. Gizakiek Antzinatean tribuetara, klanetara edota gens familia multzoetara, bizi ziren feudoetara, parroketara, herrietara edo hirietara jotzen zuten talde identitate baten bila, ez nazioetara. Nazioak esan bezala ez ziren XIX. mendea arte asmatu erreferente identitariok bezala, eta hori gertatu zenean nahiz eta erreferente horiek iragan urrunera proiektatzen baitziren benetan nahiko azkar eraiki egin ziren (nazioaren kontzeptu eta definizio bera, biltzen duen kontakizun sasi historikoen multzoa, eta parafernalia ikoniko guztia ere).

16.- Mundu honetan ez dago talde etniko 'garbirik', eta ez dago mestizajearen emaitza ez den herririk.

Gizaki guztiok Afrikan duela berrehun mila urte bizi ziren mila bat arbasoengandik etortzeaz aparte ez dago planeta osoan berrehun mila urte horietan isolatu aski egon den talderik 'garbi'tzat hartzeko modukoa, edo herri ezberdinen odol gurutzaketaren emaitza ez denik.

Are gehiago, mestizaje kulturalik gabe gizakion kultura ez zatekeen inoiz garatu, eta aurrerapenak (kurpilaren edo idazkeraren asmakizunetatik adimen artifizialeraino) deskubritzea edo lortzea edo menperatzen lortzea bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izan da eta da transmititzea eta hedatzea. Aurrehistoriatik herrien arteko kultur berrien eta asmakizunen edo aurrerapen eta trebezia praktikoen hedapena itzela eta etengabea izan da.

Ez da historia osoan erabat isolatuta egon den gizaki talderik, eta isolatuegiak egon direnak atzeratuta geratu dira, euskaldunak adibidez (edo euskalduntzat jo genitzakeen tribuak, baskoiak, autrigoiak, karistiarrak, barduliarrak eta akitaniarrak) Burdin Aroan zeuden erromatarrek iritsi zirenean, Kantauriko gainontzeko kulturak bezala atzeratuta (erromatarrekiko), eta Harri Aroan dauden taldeak Amazonasen bizi dira gaur egun oraindik.

Nazionalismo bera ere ideologia berri bezala azpiegitura, komunikabide eta masen tresna kultural modernorik gabe ez zatekeen posible izan.

Gezurra dirudi gogoratu behar izana aberea den gizakiak bi banakoen arteko sexua behar duela ugaltzeko, eta hori egunero egiten den milioika aldi bakoitzean geneak gurutzatzen eta nahasi egiten direla bi aldeetatik milaka arbasoen geneak jaioberriari ekarriz eta emanaz... finean duela berrehun mila urte Afrikan bizi ziren mila aiton-amonarenak direnak ez beste inorenak.

Bestetik, hilkor denok ondotxo dakigun bezala denbora ezin da gelditu, eta kultura gizakiak ingurugiroak planteatzen dizkion bizirauteko erronkei aurre egiteko tresneria mental kolektiboa besterik ez da, etengabea aldatzen doazen baldintzei egokitzeko etengabea aldatzen doana ontzi batetik bestera isurtzen dugun ura eitea egokitzeko beti aldatzen doan modu berean, pertsonak eta belaunaldiak hiltzen direnean pobretzen doana eta pertsonak eta belaunaldiak aberasten eta berritzen doana, kanpoko eraginekin saretuta dagoena, uneoroko elkarrekintzan garatzeko eta zibilizazioaren aurrerapen bakoitza eskuratzeko.

Kultura bat identifikatzen edo aitortzen dugun bakoitzean gezur bat esaten ari gara ibai bati edo euriari egiten diogun argazki bat gezur bat den zentzu berean, bat ezin delako bi aldiz kultura berean murgildu, ezin duelako inork ura eskuarekin hartu. Zer esanik ez definitzen saiatzerakoan, baloratzeko, defendatzeko, gordetzeko, goraipatzeko edo edozer egiteko, errealitatearen mataza likidotik ezaugarriak edo zeinuak, arketipoak, harilkatzen saiatzen garenean ulerkuntza edo sistema edo irudi bat osatu nahian. Atzemate estatiko edo irudikapen oro gezur hutsa da, gezur handi bat zehatz-mehatz hautatutako gezurrezko hariekin ehuna.

17.- Nazioak oso zailak dira objektiboki definitzen, eta ondorioz autodeterminazio eskubidearen subjektua zein den zaila da juridikoki zehazten.

Nazionalistentzat maite duten nazioaren izana eta ezaugarriak agerikoak iruditzen zaizkie, ahaztuta daukatelarik zenbateraino asmakizun mental hutsak diren eta izan diren. Aldiz, nazio bat definitzeko erabili ohi den tresneria edo erreferentziak, bertako biztanleek partekatzen omen dituztenak, hizkuntza, kultura, erlijioa, historia, lurralde-esparrua, jatorri historikoa, epe luzerako nahi politikoa, edo zein ere den, ez dira era objektibo eta parametrizagarri batean isolatzen eta zehazten errazak.

Nazioaren kontzeptua hizkera arruntean auresuposatu horietako bat da, elkarriketetan erabiltzean denok ulertzen dugula uste duguna, baina horren helduera, edukiak eta esanahia zehaztera jaisterakoan zailtasunak datoz.

Haatik arau bat finkatzeko orduan, morala baldin bada ere, definizio zehatza behar da, zer da nazioa eta zein da zehazki erreibindikatzen diren ustezko eskubide horien subjektua? Nazionalistek zentzu zabalean nazio bakoitzak bere burua gobernatzeko, autodeterminatzeko eta, horrela erabaki ezker, estatu propio bat eratzeke jatorrizko eta oinarritzko eskubidea daukala hastapen bat bezala aldarrikatzen dute, eta hortaz eskubide hori nazioarteko arau batean indarrean jartzeko moduan (1966ko Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko Itunean eta Eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen nazioarteko Itunean jasota dagoen bezala, "Herri guztiek dute libre determinatzeko eskubidea. Eskubide horren arabera, herriek askatasunez ezartzen dute haien izaera eta baldintza politikoak eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturala ere sustatzen dute") ezinbestekoa da eskubide hori nork daukan, legitimazioa termino tekniko juridikoetan, nori dagokion eta nori ez bereizteko (Irlanda osoari dagokio baina Ipar Irlandari ez?, Euskal Herria osoari dagokio baina Nafarroari edota Estatu frantziarrean dauden euskaldunei ez?, Gibraltarreko biztanlegoari al dagokio?, Espainia osoari dagokio baina Kataluniari ez?, Hong Kongi edo Taiwani ez dagokie baina Txina osoari bai?, edo alderantziz?, Donbaseko biztanlegoari ez dagokio baina Ukraina osoari edo Errusia osoari bai?, makina bat kasu zalantzarriak edo eztabaidagarriak badaude munduan eta autodeterminazio eskubidearen erabilera maltzurra ere ez da arraroa).

Anarkistek (Kropotkin, Bakunin eta Proudhon batez ere) zuzenean eta argi eta garbi erantzuten zuten galdera: komunitate orok dauka autodeterminatzeko eskubidea, baina horren aplikazioa ez da horren erraza edo agerikoa. Lurralde zehatz batean finkatuta ez dauden komunitateek, talde erlijiosoak esate baterako, autodeterminatzeko eskubidea daukate ere bai? Izatekotan nola gauzatu liteke hori? Herririka batek ba al dauka estatu propio bat eratzeke edo estatuz aldatzeke eskubidea nahi duenean eta anexioa onartzen duten estatuarekin, komenientziaren arabera?

Praktikan posible den baldin bada galdera erantzuna baiezkoa da. European eta munduan dauden mikroestatu txikienetako batean, Liechtensteinen (bide batez esanda hizkuntza eta etnia alemaneko European egun dauden bost estatuetakoa bat, Alemania, Austria, Luxemburg, Suitzako zati bat eta Liechtenstein, azkenekoa aberatsena izanik, eta nazionalismo orokorreko azken bi

mendeetan ez dirudi Liechtensteindarrei volkgeist-a barruan gehiegi erre edo manifestatu zaienik) osatzen duten herrixka bakoitzak konstituzionalki autodeterminazio eskubidea dauka eta ondorioz estatutik alde egitekoa, nahi duenean eta gehiengo sinplez. Eta printze zaharrak esaten omen zuen hori ez zela nahikoa, biztanle bakoitzak izan behar lukeela autodeterminazio eskubidea (finean badauka, beste modu batean baina leku guztietan bezala, emigratzekoa).

Nazioa subjektu politiko eta juridiko bezala definitzeko zailtasunek zera uzten dute agerian, ez dela erakunde natural bat, asmakizun bat bezala. Ernest Gellner-ek zioen moduan “nazionalismoa ez da nazioen buru kontzientziara ernatzea: ez dauden lekuan nazioak asmatzen ditu”.

18.- Nazionalistek herrien esentzia kolektiboan, nazioen ariman eta antzeko superstizioetan sinistu ohi dute.

Alderdi eta mugimendu nazionalistek, beren proposamena osatzeko asmatzen duten nazioaren kontzeptua eta kontakizun sasi historikoak antolatzearen harira, edota gizarteko lehia politikoan eraiki behar duten diskurtso edo erretorikaren harira, sineskerietan erortzen dira behin eta berriro. Egien eta datu objektiboen zurztasun gorrian, erretorika eta diskurtso horiek betetzeko zentzugabeko superstizio hutsaletara jotzen baitute uneoro, askori aipamen horiek (sineskeria guztiak bezala frogaezinak eta eztabidaezinak izanik) eztabaidan ematen dieten azaleko nagusitzeak edota argudio definitiboen itxura aski zaizkielarik.

Nazionalistek garatzen duten nazio-estatu mesianiko batekiko fedeari, identitate eta nortasun hornitzaile bezala ustez jokatzeko duena edo joka lezakeena, eta garapen kultural, sozial eta ekonomikoren iturri nagusia litzatekeena, kutsu erlijioso bat dario ere bai.

19.- Batek ez du aukeratzen zein kulturatan edo zein komunitatean jaiotzen den, eta beraz horretaz harrotzea zentzugabea da.

Arthur Schopenhauerri esleitzen diote esaldi hau: “Edozein gizajo zakar, harrotzeko ezer ez daukana mundu honetan, azkeneko baliabide horretan babestu egiten da, kasualitatez jaio den nazioaz harrotzea”.

Inori ez ziguten galdetu non sortu nahi genuen, zein familiatan, zein herritan edo hiritan, ezta zein estatutan edo “naziotan” ere. Hortaz, jaio garen kulturaz harro egotea tonto samarra da benetan, horretan ez daukagulako inolako meriturik.

Jakina bizitzak aurrera egin ahala gure bizilekua, identitatea eta leialtasunak aukeratu egiten ditugula, jaiolekutik mugitzen ez baldin bagara ere, baina umetan jasotzen dugun nazionalitatea, pentsamoldeak eta mentalitatea, eta ama hizkuntza ez ditugu aukeratzen.

20.- Nazionalismoek maiz xenofobia eta gerra odoltsuak eragin dituzte.

Nazionalismoak XIX. mendean sortu zenetik munduko gerra gehienak eragin ditu, Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak barne (Lehen mundu gerraren amaierak paradoxikoki nazio-estatu ugari sortzea ahalbideratu zuen arren, Europako azkeneko inperioak, Austriar-hungariarra eta Otomandarra, disolbatu egin zituelako), eta XX. mendeko gerra kolonial ia guztiak barne (beste kontinenteetako herriak metropoli europarregandik askatzeko eta independentzia lortu arte matxinatu zirenean harrigarriro europar pentsamolde nazionalista eta antiinperialista guztiak inportatuz eta bereganatuz egin zuten). Eta azkeneko berrehun urtetan nazionalismoak zuzenean eragin ez dituen gatazka gutxitan, gerra ideologikotzat hartzen direnak, osagai nazionalista nabaria da ere.

Lehen Mundu Gerran 23 milioi lagun hil ziren eta beste hainbeste zauritu edo elbarri suertatu ziren, eta Bigarren Mundu Gerran 73 milioi lagun hil ziren (sei milioi judutar, ijitu, homosexualak eta bestelako gutxiengoaren holokaustoa barne) eta ehun milioitik gora zauritu edo elbarri suertatu ziren.

Laurogeita hamarrekoko hamarkadako Jugoslaviako gerretan 140.000.- hildako, zauritu eta elbarri ugari, eta lau milioi errefuxiatu eragin zituzten nazionalismo etnizistek.

Egia da Gizateriak betidanik izan dituela gerrak (txinpantzeak taldeen arteko lurralde gatazkek edo 'gerrak' izaten dokumentatu dituzte, beraz ez gara baliabide urriengatik -lurra nagusiki- pareekin borroka bortitzak dauzkagun hominido espezie bakarra, hori nonbait kontsolamendua bada), baina hemeretzigarren mendean hasita eta 'Nazioen udaberritik' izandako gerrak bereziki hilgarriak eta hondagarriak izan dira, batzuetan Gizateriaren munduaren gainean bizirautea arriskuan jartzeraino, gehienak ondoko ustezko laidoengatik edo bestela lur zati baten gutizia hutsarengatik, edo fanatiko batzuek aparte inork gogoratzen ez zituen behinolako kontuak ateratzeagatik.

Izan ere, ondo ulertzen baita jatorriari buruzko harrotasuna zabaltzen eta orokortzen hasten denean ez dela zaila harrokerian eta xenofobian bukatzea, eta biktimismo jarraiak agresibitate darama sarritan, eta jasandako umiliazioengatik, errealak edo ustezkoak edo handietsiak, mendeku grinara.

Egun gertatzen diren gerrak ere, Ekialde Hurbilekoak eta Ukrainiaren inbasioa besteak beste, nazionalismoak eragin ditu.

Nazionalismorik gabe gatazka armaturik ez genuela izango? Jakina ezetz, eta nazionalismo berak ez dauka ezer derrigorrez bere jarraitzaileak gerretara edo armak hartzera bultzatzen dituen. Gerrak aldizka bagenituen nazionalismoa iritsi baino lehen, garai haietan bat edo gehiago belaunaldi bakoitzean hain zuzen ere, eta zorionez gero eta gutxiago dauzkagu, eta ziur aski izango ditugu nazionalismoa igaroko denean ere. Baina nazionalismoaren eta bortizkeriaren arteko elkarrekintza eta lotura ere ezin da ukatu, agerikoa delako, gurean arestiko diktadurak eta terrorismoek erakusten duen moduan.

21.- Nazionalismoek giro kulturala pobretu ohi dute.

Aro batean Europako unibertsitate guztiek hizkuntza bera erabiltzen zuten, latina, eta inperioetako agintariek artista eta idazle onenak biltzen zituzten beren gorteetan elkarrekiko lehian eta beren jatorriari begiratu gabe. Iraultza liberal burgesak gertatu ondoren eta herriek boterea eskuratzen joan ziren ahala, nazio-estatuak eratzean prozesu horrek dakarren guztiarekin, hiritar berriek gorteetan, unibertsitateetan eta erakunde nazional berri guztietan bertakoak egon behar zutela hasi ziren eskatzen, subiranotasun adierazpen bezala, eta lortu zutela begi bistan dago.

Horrekin lotuta, antisemitismoa zabaltzen joan zen, judutarrak bertan belaunaldi asko eraman arren benetan bertakoak ez zireneko susmoetan jarri zuena, erlijio ezberdin bat praktikatzeko zutelako beste arrazoirik gabe.

Era batean eta bestean, goi kulturaren tradizionalki egon zen nazioarteko zirkuito aberatsa eta anitza murrizten eta pobretzen joan zen eta jakina, goi kulturaren maila (baita kultura herrikoiarena ere, elkarrekintzaz) jaitsi zen ezinbestez. Nazionalismo kulturalak artelan ederrak eta apartak sortu ditu leku askotan, hori egia da, agian nazionalismorik gabe sor ez zitezkeenak, baina egiazko kultur nazionalik ez dago, kultura eta artea kultura eta artea dira, adjektiborik gabeak, mugagabeak eta berez mugaezinak. Konpromezuzko kulturak edota arteak ez dituzte normalean kalitate maila onargarriak lortzen.

Horrela nazionalismoa arlo kulturalen eta artistikoen mugimendu emankorra izan dela ukatu gabe (mito nazionalistarik gabe ez dago Wagner bat edo Diego Rivera bat imajinatzerik, beste askoren artean), aldi berean indar mugatzailea eta pobretzailea izan dela ezin da ukatu ere ez, mestizaje kulturala esplizituki edo inplizituki murrizten edo oztokatzen saiatu den eta maiz lortu duen aldetik.

Are gehiago, ez dago ziurtatzetik historia-fikzioa delako baino ez dago zertan sinistu beharrik Europako nazionalismoaren aurreko garai bateko kultur giro kosmopolitak bere horretan jarraitu izan balu, perturbazio nazionalistarik gabe, lokalismoek inspiratutako artelanak edo partikularismoak gaitzat hartzen zituztenak ez zitezkeenik egon, beste kutsu batekin agian. Alderantziz, jakin badakigu nazionalismo politiko eta kultural itxiek aurreko goi kultur kosmopolita eten egin zuela leku askotan.

Horrez gain, nazionalismoa probintzianismotik metafisika egiteko grina da, alferrikakoa bezain irigarria, baina bizitza osoak irensten dituen belaunaldi bakoitzean, itzuli ezin daitekeen denbora galtze okerrenetakoa eta beste ametsek mereziko lituzketen energien, dohainen, dedikazioen eta ahaleginen estolda-zuloa. Nazionalismoa eta ustezko kultura nazionalak ez dira egiazko kultura unibertsalari so egiteko behatxulok gisara erabiltzen direnean salbu.

22.- Ez dago gu bat definitzerik, nazionalismoak egiten duen moduan, besteak baztertu gabe.

Definitzea berez eta etimologikoki kontzeptu edo ideia baten deskripzioari eta identifikatzeari mugak jartzean datza, zerbait barruan eta zerbait kanpoan uzte aldera. Hortaz ez dago gu bat definitzerik, nazioa edo dena delakoa, aldi berean haiek bat definitu gabe, eta ez dago elkartasun lotura nazionalista bat besteei luzatzerik beste batzuei ukatu gabe, eta ez dago zer garen zehazterik edo garena ona dela esaterik zer ez garen, besteak zer diren eta gu baino txarragoak direla esan edo esan ez arren suposatu edo aditzera eman gabe.

23.- Arranoak eta sugeak.

1954an Muzafer Sherif soziologoak esperimentu bat egin zuen, The Robbers Cave experiment izenekoa. Antzeko jatorriko (protestanteak, klase ertainekoak, eskolan ondo moldatzen zirenak, koefiziente intelektual altu samarra zeukatenak) baina elkar ezagutzen ez zuten hamabi urteko hogeita bi mutiko bildu zituen uda kanpamentu batean Oklahoman. Hamaika haur sartu zituen etxe batean (arranoak) eta beste hamaikak beste etxe batean (krikitin-sugeak), elkarren berri ez izanik, eta kanpamentuko jarduerari ekin zieten sei egunez, txangoak, bainatzera joan...

Espero bezala talde bakoitzeko partaideak elkarren arteko loturak eta harremanak garatzen hasi ziren, hierarkikoak barne, zenbait lider gailendu ziren arte eta nolabaiteko talde izpiritu bat sortu zuten arte, nahiko denbora gutxian,

Orduan antolatzaileek talde bakoitzari bestearen berri eman zioten, aurkeztu gabe eta kontaktuan sartu gabe oraindik. Egun batean talde batek bandera bat jarri zuen beisbol zelaian berea zera erakusteko antza.

Ondoren bi taldeen arteko partidak eta lehiaketak antolatzen hasi ziren beste sei egunez, garaileei medailak eta labanak sari gisa ematen, eta bi taldeen arteko lehia oso azkar azaldu zen, eta jarraian irainak, mehatxuak, borrokak, beste taldearen kanpamenturako razziak gauzak hondatzeko, eta abar.

Esperimentuaren hirugarren fasean bi taldeak elkarrekin bizitzen jarri zituzten beste sei egunez, elkarrekin lo egiten, jaten eta jarduerak egiten, besteak beste uztailaren laua (Estatu Batuetako festa nazionala) ospatzen. Elkarbizitzan bi taldeen arteko mesfidantza, lehia eta areriotasuna ez zen bukatu.

Sei egunak pasata, azkeneko fasean, denei proiektu komun bat enkargatu zieten arte. Ura murriztu zieten eta mutil guztiak azkenik elkartu egin ziren eta antolatu egin ziren ur gehiago lortzeko, hortik aurrera pauso gehiago emanez: dirua denen artean bildu zuten zinemara elkarrekin joateko gustatzen zitzairen filma bat ikustera, janaria eramaten zien kamioia matxuratu egin zenean denak elkarrekin joan ziren laguntzera...

Ondorioa? Talde desberdintasunak eta lehiak gainditzea eta jendea integratzea beti posible dela.

Irakaspen bera ondoriozta dezakegu beste eskala batean eta gizarte errealean bideratutako esperimentu batetik: Europear Batasuna, mendeetan zehar beti elkarri etsai bezala begiratzen eta gerretan ibiliak ziren herriak proiektu amankomun batean integratu zituen eta European izandako bake arorik luzeena ahalbideratu duena.

Kantek proposatzen zuen gobernu mundiala beharbada ez litzateke konponbide orokorra, ia ahalguztiduna litzatekeen gobernu horretatik (zuzenbide estatu batean eratuta egon arren, Kanten ustean) ez legokeelako nora erbesteratu edo nora ihes egin, baina hartara iritsi beharrik gabe integrazioa gatazkak gainditzeko erabilgarria dela eta funtzionatzen duela frogatuta dago.

24.- Nazionalismoak gizabanakoaren askatasuna murrizten saiatzen da.

Nazionalismoa berez ideologia kolektibista da, nazioa bizitzako interes puntu nagusitzat hartzen duen unetik. Kolektiboa da garrantzitsua, inporta duena, muina, eta gizabanakoak nazioaren defentsarako edo sustatzerako lanabesak dira.

Nazionalismoak ez du pertsona interes guzaien erdian jartzen edo ikusten, ez liberalismoak edo anarkismoak egiten duten moduan bederen, esate baterako eta besteak beste, herrian baizik, komunismoak egiten duen moduan (diferentziak alde batera utzita). Horren ondorioz, pertsonak bitartekok edota baliabidek bezala kontsideratzeko funtseko joera dauka, xedea den nazioaren zerbitzura jarrita.

Jakina badira nazionalismo humanistak pertsona berezko xede eta balore bezala hartzen ikasi dutenak, eta egun gehienek giza eskubideak errespetatzen dituzte edo errespetatzen ditzutela diote, baino funtsezko joera eta interesa ez da pertsonan zentratzen.

Jatorriz eta oinarritz nazionalismo oro estatista da, eta ez da kasualitatea behin baino gehiagotan nazionalismoari estatu erlijioa deitu edo kontsideratu izana.

25.- Nazionalismoak partikularismoak exageratzen ditu eta garrantzitsuak bailiran saltzen saiatzen da.

Edukiak eman lizkioketen berezitasunen (esentziak ez esateko) bilaketa etsian nazionalismoak partikularismoen zantzuak edo mamuak ikusi nahi ditu ohitura eta leku guztietan. Maitatuko herrian arkitekto on bat egon bada edo baldin badago, esate baterako, bere lanak izpiritu nazionalaren fruituk izango dira nahitaez, eta berdin edozein artista, idazle, ingeniari, enpresari edo pertsona nabarmen bertakoa eta jatorra. Izpiritu nazionala beti ba omen dago inguruan flotatzen, herri hautatuaren edozein pertsonan gorpuzteko zain, kriminaletan eta kaskarretan ezik, jakina.

Behin izpiritu nazionalaren gorpuzketa horietako edozein identifikatuta, alamera ematea amaigabea izango da, izugarria, errepikakorra berez hasiera batetik itzulerako bidea hartzen duelako sarritan: besteek aldeztu aurretik balioa ikusi ez baldin baliokete lan bati ondoren nazionalistek normalean ez lukete izpiritu nazionalaren zantzurik han aurkitu, izango, aberriko jendioaren adierazpena hain zuzen ere.

Esan beharrik ez dago ustezko partikularismo edota tipismo horietan ez dagoela ezer berezirik edo partikularrik, eta gizakiaren hats unibertsalaren arrastoak nonahi agertzen direla.

26.- Nazionalismoa erromantizismoarekin lotuta dago sortzez eta irrazionalismoz josita dago.

Horren barneratuta daukagu nazionalismoa nonahikotasuna gizartean gure garaian ahaztu zaigula zenbateraino berritasun arraro bat izan zen hasi zenean, XVIII. eta XIX. mendeetan, eta zenbateraino liberalismoaren ondorioa izateaz aparte eta Antzinako Erregimenaren amaierako testuinguruan sortua izateaz aparte giza historian izandako korronterik arraroenarekin lotura estua izan zuen bere hasieran, erromantizismoarekin hain zuzen ere, balore klasiko eta irrazional guztien inbertsioa suposatu zuena.

Nazionalismo orok nazioak asmatu ondoren historia apaintzeari eta fabulatzeari ekiten diete berehala eta premia grinatsu batez, baina ezin dute ideologiaren berariazko historia garbitu ezta ezabatu ere.

Nazionalismoaren aitona (eta erromantizismoaren aita), Johann Gottfried Herder, paisaiak eta ustezko giza-arrazek nortasuna baldintzatzen dutela, poetak genioak direla beren bertsuak ezerezetik sortzen zituztenak herriaren izpirituaren inspirazioz, artistek beren lanetan pasioak besterik ez zituztela jasotzen, eta antzeko hutsalkeria irrazionalak behin eta berriro pentsatzen eta idazten zituen pentsalari bat izan zen, bere bizitza osoa ilustrazioa lurperatzen saiatzeari dedikatu ziona, eta hori guztia Kanten ikasle izanaren pribilegioa izan ondoren.

Herder izan zen nazionalismoaren muinean dagoen mito-ama, aldi berean jaso zuen fabulaziorik handiena izan zena (eta fabulazio dezenteri ekin zion) gehien garatu eta hedatu zuena: Volkgeist, Joxe Azurmendik tentu handiz 'Herri gogoa' bezala itzultzen duena, geist hitzaren alemanez polisemiak baliatuz (bidenabar Herder berak hitza sekula erabili ez zuela zehaztuz eta kontzeptuari jatorri errenazentistak bilatuz –Xabier Zabaltzak XVII. mendean kokatzen du, Francis Baconen lanean-), baina aitzitik "Herri izpiritua" edo "Herri genioa" esan nahi duena, jakina herria zer den azaldu edo zehaztu gabe, izpiritu hori edo genio hori zer izan litezkeen azaldu gabe eta horri buruzko inolako pistarik eman gabe (Joxe Azurmendiren ustean hizkuntza agian), eta jakina ez molestatu galdetzen nola edo zer magiaren eraginez ustezko 'izpiritu' edo 'genio' hori pertsonen artean sare, esteka eta manifesta litekeen (hildakoen eta bizidunen artean ere). Herderen Volkgeist-en alboan Freuden subkontzientea zientzia dirudi.

Herder entzun edo irakurri ondoren Grimm anaiak 'herriaren izpiritu' horren bila bideetan barrena abiatu ziren 'egiazki alemanak' ziren ipuinak beren liburuetan jasotzera, gure Resurreccion Maria de Azkueren kasuan bezala folklorista lan itzela burutu zuten arren egin zuten manipulazio mailarengatik jakiterik ez dago salbatu zutenak hondatu zutena konpentsatzen duen.

Noizbait irakurleak nazionalismoaren kutsu ilun hori, pasiozkoa, ezkorra, afektatua, afektiboa baino emozionala, ameslaria eta fantasiatsua; heriotzarekin, martirekin eta sakrifizioarekin erlijiosoki liluratuta, amankomuna baino desberdina baliotsuagotzat jotzen duena, eguneroko errealitate objektibotik edozein aitzakiaz ihes egin nahi duena, ideiak, baieztapenak edota alegiak arrazionalki justifikatzeko printzipioz inolako beharrik sentitzen ez duena, eta abar, nondik datorren bere buruari galdetu baldin badio ez du zertan beste inon bilatu behar, erromantizismoaren fabrika-marka da.

27.- Historiak nazionalismoa gainditua izango dela erakusten du.

Historiaren ibilbidera begira jarrita, ausaz ez da ausartegia nolabaiteko bilakaera ikustea gizasemearen leialtasunen edo elkartasunen erreferentetan, ingurukoak, familiakoak, gens, baiara, tribua, feudoa, parrokia, herria edo hiria, nazio-estatua... Eta fededunek kontrakoa sinesten duten arren, nazio-estatua ez dago hemen betirako. Gizartearen historian ez dago erakunde eternalik eta nazio-estatua ez da lehenengoa izango, izan ere formulak agortze seinaleak eman ditu azken hamarkadetan, askok erakundea aspalditik krisialdian ikusteraino.

Nazio-estatuak eta sortzen dituzten sinesmenak eta leialtasunak ez dira egun batetik bestera desagertuko, baina denboraren poderioz erakunde kontinentalek ordezkatzeko dituztela eta nazio-estatuak astiro alboratuta geratzen joango direla azaltzen duten zantzuak ez dira gutxi. Erreferentzia marko berriak, mentalitate berriak eta leialtasun berriak, historia gelditzerik ez dago.

28.- Nazionalismoa alienagarria da.

Nazionalismoa berez ideologia alienagarria da gutxienez hiru zentzutan:

- Eskubide eta interes indibidualak baztertzen dituelako interes nazionalaren zerbitzuan jarritz eta azken honen onerako bakarrik.
- Nazionalismoak gizarteak nazioaren kontzeptua eta interes nazionala ustezko babestu beharra bereganatzea eta onartzea eta sentimendu naturalak bailiran tratatzea lortzen duenean, oso erreza delako sinesmen eta sentimendu horiek egunero jendea manipulatzeko tresna agortezinak bezala erabiltzea edozein gauza edo praktika eztabaidagarria estaltzeko, kudeaketa eskas arruntetik politika xenofoboetaraino (horiek bere aldetik estaldura arrunta eta merkeenetakoa izanik, arazoak kanpokoari leporatzea), eta beste herriekiko edota gutxiengoekiko jarrera agresiboak edo zapaltzaileak barne.
- Nazionalismo bakoitzak komunitate politiko propio bat sortzen duelako oso azkar, eta komunitate hori zabaltzen doan heinean pertsona bakoitzaren balidazioa nazioaren edo mugimendu nazionalistaren buruzagien edo kideen esku uzten duelako, pertsonen beren burua balioesten irakatsi beharrean, politikoki ere.

29.- Kulturak eta identitateak ez dira estatikoak dinamikoak baizik, eta disolbatzeko prozesu etengabe batean murgilduta daude.

Kulturak eta identitateak ez dira estatikoak, dinamikoak baizik, sortu zituen eboluzio, mestizaje eta gurutzaketa prozesu berberera esposatuta daudelarik uneoro eta berez disolbatzeko prozesu etengabe batean murgilduta daude ezinbestez. Hondartzako hondarrezko gaztelu bati amodio eternala zin egitea alferrikakoa da, are gehiago globalizazioaren itsasgora etortzen ikusten dugunean.

30.- Kolaboratzea eta batzea izan dira historiaren motorrak, ez urruntzea ezta isolatzea ere.

Gizakiak Afrikako oihanetatik egindako ibilbideak eta zibilizazioaren lorpen sinestezin guztiek zerbait erakusten badute zera da, kolaboratzeak eta batzeak aurrerapenak eta elkar babesa (eta zoriontasuna ere, bide batez esanda) dakartzatela, urruntzeak eta isolatzeak ez.

Mundu honek zatitzeak, desberdintasunak eta mugak soberan dauzka dagoeneko beste bat edo beste batzuk gehiago ezartzeko, eta dagoen bat edo batzuk kentzea ia beti ideia ona da ondorio probetxugarriak dakartzana epe laburrean, epe ertainean eta epe luzean.

Denok badakigu abantaila bereizgarrien garrantzia edozer besteei saltzeko orduan, edozer hori norbera baldin bada ere, eta inozoa litzatekeela hori ukatzea ('saldu' hitza gogorregia daitekeen arren), baina merezi al du denbora norberaren desberdintasunak bilatzen, esajeratzen edo baloratzen xahutzea besteengana gerturatzen saiatzen inbertitu beharrean?

31.- Nazionalismoa ideologia bezala emozioetan oinarritzen da gehiago pentsamenduan baino.

Pertenentzia, kidetasuna, nostalgia, ametsa, utopia, itxaropena, maitasuna eta maitasunaren beharra, gorrotoa, erosotasuna, beldurra, deserrotzea, zentzuaren eta esanahiaren bilatzeko behar etengabea... nazionalismoak emozioen uretatik edaten du pentsamendu arrazional erreflexiboenetatik baino.

Jakina ideologia bezala gero emozio guzti horiei erantzuteko eskaintzen den erantzun eskasa diskurtso batean artikulatu beharra dagoela, eta ekoiztutako kontakizunen liluraren ondoko hordialdiaren biharamunean planteamendu politiko zehatzetara jaitsi beharra dagoela, baina nazionalista bihurtzeak eta mantentzeak gehiago du maitemintzetik konbikziotik baino.

32.- Nazionalista izateak isuri kognitiboekin baldintzatzen ditu errealitatearen hautematea eta erabakiak hartzea.

Ortega y Gassetek esaten zuen moduan, guk ideiak dauzkagu, baina sinesmenek gu gauzkate. Gogoia ideologia nazionalistan gehiago edo gutxiago murgilduta izateak kanpoko errealitatea hautemateko eta epaitzeko, eta egunero gauden bidegurutzean erabaki egokiak hartzeko adimena era askotan baldintzatzen, zamatzen eta kaltetzen ditu.

Bertakoak (eta gehiago bertako kontzientziatuak) hobeak, fidagarriagoak edo zintzoagoak direneko suposizioak edota bertan egindakoa ia beti hobea deneko suposizioak ondorioak izan ditzake bizitzan. Ez dago ideologiarik iritzirik gabea eta nazionalismoaren kasuan arreta gehiago jartzen da aurreiritzietan iritzietan baino.

Nazionalismoa ez da dohainikakoa.

33.- Nazioek ez digute nortasuna edo izaera ematen.

Familiak izena, abizena eta hasierako bizimodua ematen dizkigu, jatorrizko identitateaz gain. Hizkuntzak eta kulturak pentsamoldeak, adierazteko eta ingurukoekin komunikatzeko tresneria, errealitatearen gaineko ikuspegia, bizirauteko oinarrizko estrategiak eta pentsamenduak eta iritzia eraikitzen joateko osagai gehienak ematen dizkigute, eta beste identitate geruza edo kolore bat ere.

Zer ematen digu edo zer eman lizkiguke estatuak edo nazioak? Nazio horrek edo estatu horrek komunitatea kudeatzen duenean gauza asko ematen dizkigu: segurtasuna, zerbitzu publikoak (garraioa, erreklamazioak bideratzeko justizia sistema bat, azpiegiturak -ura, bideak, gasa, elektrizitatea, hilerriak, zabor bilketa, parkeak, suhiltzaileak eta abar luze bat-, gune publikoen zaintza eta garbiketa publikoak, heziketa formala ikerketa mailaraino nahi ezkerro, liburutegiak eta kultur etxeak, sehaskatik hilobirainoko kalitatezko osasun zaintza jarraia, diru prestazioak eta laguntzak lan egin ezin dutenentzat edo ordain ez dezaketen zerbitzuak edo ondasunak behar dutenentzat, eta abar luze bat ere. Baina komunitatea ez du zertan nazio-estatu batek edo estatu batek kudeatu behar derrigorrez, izan ere ez da formula bakarra eta izatez historian berri samarra da.

Batek ezin du bere familia jatorria aldatu ezta bere ama hizkuntza (horrek ematen dituen munduaren gaineko ikuspegi eta pentsamolde guztiekin, gizakiaren gogoia hizkuntza besterik ez delako) aldatu ere, beste hizkuntza bat edo gehiago ikas dezakeen arren, nekez menperatzeraino eta ama hizkuntza ordezkatzerraino ere.

Nazionalitateaz aldatzea aldiz oso erraza da, legez posibilitatea izan ezkerro zenbait tramite burokratiko egin eta pasaportearen kolorea eta izena egun bakar batean alda baititzakezu. Zer gertatzen zaizu ondoren? Zerbait gertatzen al zaizu? Volkgeist-ek gaixo egiten zaituela edota akabatzen zaituela?

Milioika migrantek egiten dute urtero eta nostalgiaz eta deserrotzeaz aparte (eta bi horiek ez dira gutxi) ez dirudi nortasun edo izaera izpi bat galtzen dutenik prozesuan.

Eta zer esanik ez ideologia aldaketak, horrek ez dizu ezer aldatzen zerorrek aldatu nahi duzunaz aparte.

Ferdinand Tönnies-en sailkapen proposamenean, komunitateen eta sozietateen artekoa, eta inork non jaiotzen den erabakitzen ez duela kontuan izanik, nazio-estatu edo nazioa, eta are gehiago ideologia edo alderdi nazionalistak berak ere jakina, sozietate artifizialak dira komunitate organikoak baino.

Mito nazionalistek dioten aurka, nazioek edota estatuak ez diote nortasuna ezta izaera inori ematen, ezta etsian urte luzeetan hor bilatzen dutenei ere.

34.- Nazionalismoak sortzen duen genealogia sentimendua fantasiazkoa eta iruzurrezkoa da.

Gaurko euskaldunek ahaidetasun gutxiago daukate, zentzu orotan, erromatarren garaiko euskalduntzat jotzen ditugun tribuekin XXI. mendeko edozein gizarte mendebalдарekin daukatena baino.

Gaurko espainiarrek ahaidetasun gutxiago daukate zentzu orotan Cid-aren garaiko gaztelarrekin XXI. mendeko norvegiarrekin daukatena baino.

Gaurko frantziarrek ahaidetasun gutxiago daukate zentzu orotan Joana D'Arc erre zutenekin gaurko italiarrekin daukatena baino.

Gaurko britaniarrek ahaidetasun gutxiago daukate Gilen konkistatzailea garaitzen saiatu zirenekin gaurko poloniarrek daukatena baino.

Eta hori gizaki denok orain dela berrehun mila urte Afrikan bizi ziren mila bat lagunak ondorengoak garela ahaztu gabe.

35.- Nazioa elkarte natural eternala baldin balitz ez luke estatu baten beharrik izango gauzatzeko.

Nazionalismoak nazioa existitzea nabaria dela aldarrikatzen du behin eta berriro, ezaugarri batzuk eta historiako zenbait pasarte aukeratuak frogen gisara aipatuz, baita agerikoa omen den nazio horrek estatu politikoa izateko eskubide naturala daukala ere, eta orokorrean nazio guztiek nazio-estatuak izan beharko luketela.

Aldiz, funtsezko kontraesan bat badago bi ideia eta sinesmen horien artean: nazioaren existentzia horren agerikoa eta historikoa baldin bada zergatik behar ote du nazioak estatu bat bere burua salbatzeko, bizirauteko edo ez desagertzeko?

36.- Nazionalismoak autarkiaren posibilitatean sinistu ohi dute, utopia fantastikoa den arren.

Nazionalismoak maitatutako herriaren ezaugarrien laudorio amaiezinean eta akatsik ez ikusteko nahi etsian nonbait autarkia ekonomikoa, politikoa eta soziala behar izatekotan posible litzatekeela sinestera maiz iristen dira. Normalean ez dute autarkia aldarrikatzen, erreibindikatzen ezta beraien programa politikoetan sartzen, zer gerta ere eta entusiasta hutsak bezala ikusiak ez izate arren, baina sinesmen hori nazionalistak beti darabil gogoan.

Horren froga edo arrastoa noizean behin ikusten diren herrialde guztietan (bereziki gure nazio maitean, gurean, beste guztien gainetik emankorra eta magikoa delako) denetarik produzi daitekeelako planteamendu eta saioetan dago.

Esan beharrik ez dago historian zehar egin diren autarkia esperimentu guztiak, bai herrialdeen mailan bai pertsonen mailan, pobrezian amaitu dutela, ekonomiaren funtsezko funtzionamendua Aurrehistoriatik gaur arte espezializazioan, elkarren menpekotasunean eta ondasun eta zerbitzuen trukaketan oinarritzen delako.

37.- Inposaketa nazionalismoaren ardatza da.

Etsairik gabe nazionalismorik ez dago, identitate bat ez dagoelako eraikitzerik bestearen kontzeptua eraiki gabe, eta diskurtso nazionalista bat ez dago osatzerik inplizituki edo esplizituki inposaketa programarik gabe, beste batzuk ez diren baino izan behar duten izatera behartzeko asmorik edo aspiraziorik gabe.

Komunitate zapalduetan nazionalismoa errotzen denean zapalkuntza eta askapen beharra bihurtzen baitira salaketa eta aldarrikapen nagusia oso goiz, baina hori baten bati izaera bat inposatzeko nahiarekin dator beti, gutxiengo bati (esan bezala edozein gizartean, txikia baldin bada ere, beti gutxiengoak badaude) bada ere, edo gutxiengo hori planteamenduarekin bat ez datozenena besterik ez baldin bada ere.

38.- Teoria nazionalistaren arabera nazioek estatuak sortzen dituzte, baina praktikan kontrakoa gertatzen da, estatuak nazioak sortzen dituztela.

Nazionalismoaren arabera nazioek, ustez izaki naturalak direnak eta edozein posizionamendu politiko baino lehen existitzen omen direnak (zenbaitetan gizakiok baino lehen ere existitzen direla uste dutela badirudi ere), kontzientzia nazionala bereganatzen dutenean eta askatzen lortzen dutenean estatu bat eratzeari ekiten diote beren gauzak askatasunez kudeatzeko.

Errealitatea kontrakoa da, eta historiari begira oso argi ikusten da. Estatuak eta erakunde nazionalistek baliabide itzelak inbertitu dituztela 'kontzientzia nazionala' sortzeko eta sustatzeko, 'formazio' plangintza eta estrategia horiek baino lehen horrelako 'kontzientziaren' arrastorik ez zegoelarik jendeen artean.

Nazionalismoa programa politiko bat da gainontzekoak bezala bere asmakizunak, nazioaren kontzeptua bere bilgarri polit guztiekin batik bat, produktu bihurtzen dituen eta promozionatzen eta saltzen dabilena, eta diru eta denbora asko behar da zer omen diren jakinarazteko alde aurretik zer ziren harrigarriki ez zekiten jendeei, baita patriotak zirenik edo izan behar zutenik ere ez zekiteneei patriota txarrak direla jakinarazteko ere.

39.- Herri bat etorkizunean handia izan daitekeelako sinesteko iraganak ez du ezer frogatzen edo baldintzatzen.

Iragan loriatsu bat izanak, egiazkoa bada ere (eta oso gutxitan izaten da egiazkoa, eta gutxiagotan oraindik itzalik gabekoa), ez du ezer esan nahi etorkizunerako proiektzioen edo asmoen edota itzaropenen arloan, ez maila pertsonalean ez kolektiboetan.

Berberatasun ekuazioak edo juizioak ezartzeko edo justifikatzeko moduko kolektiboen genealogiak ehuntzeko eta trazabilitate historikoak marrazteko zailtasunak eta ezintasunak alde batera utzita, eta ez dira gutxi, historia historia da, besterik ez. Etorkizuna ez da existitzen oraindik gertatu ez delako.

Etorkizuna iraganaren proiektzioa izan daitekeela?, jakina baietz, eta normalean etorkizunerako iragarpenak iraganaren proiektzioak izaten dira gehienetan, baina askotan ez dira betetzen, esaerak dioenaren kontra historia antzekotasunak agertzen dituelako batzuetan baina ez du bere burua inoiz errepikatzen.

I., II. edo III. mendeko erromatar bati galdetu izan ezker nolako zitekeen gaurko mundua ez luke ezertan asmatu izan, bere errealitatean oinarritua eta eskura zeuzkan erreferenteen arabera.

Hamargarren mendean Penintsula Iberiko inbadituko Iparreko mendietan bizi zen jende aberetu eskasek sei mende geroago historiak ezagutu duen inperiorik handienetakoaren egileak eta nagusiak ziren, Inperio Erromatarraren ondorengoak arlo askotan eta lehenengo globalizazio saioa lortu zuena.

Erromak bere garaian zeukan koloniarik urrunetakoa eta hezigabeenetakoa, Britania, milurteko bat eta mende batzuk geroago bigarren inperio erraldoiaren buru zen, historiako handiena, eta Iraultza Industrial sortu eta garatu zuen herria bilakatu zen, eta egun oraindik munduko biztanlegoaren gehiengoarentzat erreferente kultural eta politikorik garrantzizkoena bada.

Ipar Amerikako kolonia gosetietara migratu ziren kolonoak ez zituen inork nahi, arlote fanatiko erlijioso batzuk besterik ez zirelako eta topatu zituzten indigenak Amerikako atzeratuenetakoak ziren (zerikusirik ez Meso Amerikako edo Hego Amerikako mexiken, maien eta inken zibilizazio garatuekin), taxuzko herrialde bat eta gutxieneko azpiegiturak besteak baino beranduago eraikitzen lortu zutenak, lehenengo unibertsitatea 1636 arte eratu ez zutenak (Mexikokoa eta Limakoa 1551koak dira, Santo Domingokoa 1558koa, Bogotakoa eta Nueva Granadakoa 1580koa, Jaliscokoa eta Quitokoa 1586koa, besteak beste) eta behinola munduko komunitaterik erlijiosoenetakoa eta pobreenetakoa zirenak. Mende bat pasata Estatu Batuek 1789an planetako lehenengo konstituzioa onartu zuten, eta gaur egun munduko lehen potentzia politikoa, ekonomikoa eta arlo askotan kulturala dira, eta demokraziarik zaharrena eta gai dezentetan aurreratuenak dira.

Izan ere, XX. mendean potentzia handiak bezala munduan nagusitu ziren nazio-estatu batzuk berrehun urte lehenago ez ziren existitzen, ez nork daki datorren mendean zein egitura politikoa izango den boteretsuena planeta mailan, une gorenen eta gainbeheren ziklo etengabeen.

40.- Nazio-estatuak ez du frogatu egitura aproposa denik ere giza-bikaintasunera iristen laguntzeko.

Antzinako Heladean baita Aro Modernoko Espainian, Alemanian edo Italian, kulturak eta arteak emaitza gorenagoak lortu zituzten hizkuntza bereko herriak hamarna estatutan banatuta zeudenean nazio-estatu bakar batean bilduta egon direnean lortu dituztenak baino.

Platon, Aristoteles, Homero, Bach, Cervantes, Michelangelo, Leonardo da Vinci, Kant, Jesus, Buda, Kristobal Kolon, Mozart, Juan Sebastian Elkano, Loiolako Iñigo, Asisko Frantzisko edo Alexandro Handia ez ziren nazio-estatuetan jaio edo bizi.

Bestela, gaur egungo proiektu zientifiko garrantzitsuenak, Nazioarteko Espazio Estazioa edo Partikula azeleragailua besteak beste, nazioarteko partzuergo batzuek bideratzen dituzte nazio-estatu handiegiak eta garestiegiak suertatzen zaizkielako.

41.- Nazionalismoak norberaren komunitatearekiko leialtasuna printzipio unibertsalak baino garrantzitsuagoa dela defendatzen du.

Erlijioek balore unibertsal batzuk aldarrikatu eta hedatu dituzte Aintzinatetik, baina arlo laikoan aurrekari bat egon ziren arren printzipio unibertsalen proposamena, eztabaidatzea, argudiatzea eta enuntziazioa eskuarki ilustrazioan gertatu zela esan dezakegu. Hortaz, nazionalismoak ilustrazioaren ifrentzua direla esan dezakegu ere bai, argien mendeak sortu zituen itzalak.

Izan ere, nazionalismoa irudikatutako komunitatearekiko leialtasuna eta partaidetza goraipatzean datza hein handi batean (herri hautatuaren baitan jaio izanaren edo bizi izatearen ustezko zortiaz eta pribilejio zoragarriaz jabetzean edo kontzientzia ernatzean), eta hori berez baita balore unibertsalisten gainetik ere.

Zer da lagun hurkoarekin gizaki hutsa izateagatik beste arrazoirik gabe lotzen gaituen senidetasun edota anaitasun erlazioa, zer gizaseme guztion berdintasuna, zer bestearen askatasunarekiko eta oinarritzko eskubideekiko kezka, zer sapiens bizidunen arteko elkartasuna aberriarekin jaiotzez - bekatu orijinala bezala- horren berezia, aparta, egundokoa eta paregabea izateagatik daukagun zor erraldoia ordainezinaren aldean?

Nori zor diogun izena, izana, nortasuna, identitatea, hizkuntza, elikadura, iragana, etorkizunaren posibilitatea aberriari ez bada?

Ingurukoei baino asmatutako izaki mentala den nazioari leialtasun baldintzarik gabekoa gizaseme batek beste gizaseme guztiekiko arduraren gainetik lehenestea, nazionalistek egiten duten moduan, ez da morala, ez da bidezkoa, eta ez da duina ere.

Zer esanik ez eskatutako leialtasun absolutu eta zor ordainezin hori beste maila batean sartzen denean, historian hainbeste aldiz gertatu izan den moduan eta gaur ere gertatzen den moduan, nazionalistek ustezko aberri eternala desagertzeko zorian dagoela aldarrikatzen hasten direlako eta babesteko 'beharrezko' neurriak hartu beharra dagoela erreklamatzeko hasten direlako. Orduan ustezko atzeritarrak diren beste gizakien patuaz arduragabekeriatik jende horiek areriok eta lehiakidek bezala ikustera igaro ohi da oso azkar, 'aberiaren' edo 'herriaren' bizirauteko ezinbestekoak diren baliabide eskasak kontsumitzearekin edo agortzearekin mehatxu bat suposatzen dutenak, horrela hurrengo pausoa (bazterketa, deportazioa, erasoa, gerra) justifikatuta geratuko litzatekeela beren begietan.

Gogoratu beharrik ez dago pentsamolde eta pentsaera ibilbide horrek hogeigarren mendeko Europan zer nolako ondorioak izan dituen. Gogoratu beharra badago pentsamolde eta pentsaera ibilbide horrek hogeigarren mendeko Europan zer nolako ondorioak izan dituen, zeren eta gaur egungo Europan ere diskurtso nazionalista ugari berriro entzuten diren gertatu zena gertatu izan ez balitz bezala ari direnak.

42.- Nazionalismoak errealak ez diren arketipoak asmatzen xahutzen dute adimena eta energia.

Zer da tipikoa? Ohikoa?, tradizionala?, adierazgarria?, erakusgarria? Ez al dira guzti horiek eraikin mentalak besterik ez? Zerk egiten du tipikoa garrantzitsuagoa edo baliotsuagoa ez tipikoa baino? Jatortasun maila tipikotasunak ematen al du?

Zerk ematen du jatortasunaren neurria?, tipikoarekiko gertutasuna edo antza? Zenbat irauten du tipikoak? Nork da tipikotasuna definitzen duen epailea?

Imanol Zuberok nazionalismoa izaera bat galtzeko eta kultura bat desagertzeko beldurrak eragiten duela esan zuen, eta mehatxupearan dauden kultura gutxituentzat hori orokorrean egia dela deritzot, eta ideologia nazionalistak arriskuan somatzen duen kultura hori salbatzeko egin behar duen aurreneko gauza kultura hori definitzea da, aitortzea, nazioa asmatzea argi esatearren, horretarako kultura-herria-nazioa definitzeko arketipoak eraiki egin behar direlarik. Zer diren arketipoak? Errealitatean beren horretan inoiz ematen ez diren idealizazioak.

Egia da garai bateko giro kulturalak arketipoak hizpide zeuzkala nabarmen, ez bakarrik esparru nazionalistan, gurean adibidez Pío Barojak edo José de Artechek arketipoei buruz ari ziren behin eta berriro, baina hori arketipoekin erlazio osasuntsua ez zelarik (arketipoekin erlazio osasuntsu bat eratzerik ez dago, funtsik gabeko aurreiritziak direlako, idealizazioak, intuizioak kasurik hoberenean, superstizioak ez esateko), ez zen nazionalistek arketipoekiko garatu zuten tema mailara iritsi.

Zergatik? Ba nazionalistentzat arketipoak bizi ala hil kontua direlako: arketipoek nazioa definitzen du, eta nazioak, herriak, pertsona definitzen du bere mentalitatean. Nazioak gizakiari bizitza, izana, nortasuna, kultura eta identitatea ematen dion ama denez nazionalistaren ustean, arketipoei egokitzea pertsona baten balioa, zuzentasuna eta jatortasuna determinatzen baitu.

Jakina guzti hori ergelkeria erraldoi bat besterik ez dela, lehenik gizaki guztiok aipatutako mila arbaso afrikar haiengandik ondorengoak garelako, eta bigarrenik komunitate txikienetan eta isolatuenetan ere pertsona guztiak desberdinak direlako, eta guztiak ez direlako arketipo bakar bati egokitzen. Baina aurreiritzi hutsala eta tentela osatu arren arketipoak herritarrek jatortasun maila desberdinetan sailkatzeko edo bereizteko erabiltzen segitzen dute, eta beti badago miazte publiko horrengatik jende asko sufritzen duena, arrazoirik gabea dela planteatu gabe ere.

Zerk egiten du egiazko euskaldun bat, espainiar peto-peto bat edota zinezko frantses bat, ingeles bat, errusiar bat, greziar bat edo algeriar bat? Nazionalista sutsu bati galdetu eta jaiolekuaz edo hizkuntzaz aparte ordu luzeetako hitzontzikerian hutsalkeriak besterik ez dizu erantzungo.

43.- Nazionalismoa horren hutsala da pop kulturen naturaltasun osoz integratu dela.

Ez naiz ni nazionalismoaren ekarpen kultural itzela ukatuko duena, hemeretzigarren mendean nagusiki baina hogeigarrenean ere bai. Musikan, poesian, narratiban, dantzan, arkitekturan, arte plastikoetan eta beste arlo askotan nazionalisten eta oro har folkloristen lanek egun mendebaldar zibilizazioa denaren harroin bat osatu baitzuten, bidenabar eta horren eraginez beste munduko kultura gehienek antzeko tradizioak sortzen eta sendotzen lagunduz (kolonialismoaren aurka borrokaren aitzakiapean berariazko identitateak eta tradizio folklorikoak eredu europar hutsak jarraituz eta erabiliz).

Artista, literato, folklorista eta adituez gain, nazio estatuak eraiki zituzten aurrelari nazionalisten egundoko belaunaldiak (bai, nazionalismoa modernitatearen ideologia berria denez -ez antzinakoa-, Iraultza Industrialaren garaikidea, aurrelari ugari izan zituen sortu eta hedatu zenean) sekulako lana egin zuten estatu modernoak eratzen, zuzenbidearen, erakundeen, armadaren, heziketaren, azpiegituren eta zerbitzu publikoen arloez gain esparru kulturean, bilduma nazionalak sortzen eta aberasten, museo eta akademia nazionalak antolatzen eta abar. Historiaren pasarterik garrantzitsuenetakoa eta liluragarrienetakoa da estatu nazioen eraikuntza zalantzarik gabe.

Gaur egun, aldiz, nazionalismoaren iruditeria masen kulturaren osagai ikusgarrienetakoa bilakatu da, pop musika taldeen eta merchandising-earen, kirol giroan, souvenir dendetan, publizitate komertzialean... nonahi egia esan. Michael Billig 1995ko Banal nationalism bere lanean azaltzen saiatu zen zenbateraino egunerokoan konturatu gabe ikur eta mezu nazionalistez blai agertzen zaigun paisaia soziala, erakunde edo ekitaldi inozoen itxurapean (ez espontaneoki, maiz doktrinamendu estrategien ondorioz baizik, modu sostengatu batean eta bata bestearen ondoan gobernuak, erakundeak eta hainbat eragile nazionalisten plazaratzen dituztenak), baina orokorrean gizarte garatuen errutinan edonon txertatua ageri dena kontsumismoko kultura komertzialean aipamen jarraia eta nabarmena da, amu bezala, inbokazio bezala, talde izpirituari apelazio bezala, probokazio bezala. Zenbaitetan botere publikoek legeria eta araudia onartzera behartzeraino ikur ofizialak (sakratuak omen) merkatal zabartzetik babestu nahian eta marka komertzial arruntak bihurtzea galarazteko.

Galdera nabaria da, nazionalismoa eta bereziki ikur nazionalak horren sustraidunak, sakonak eta antzinakoak baldin badira nolatan gertatu da modako pop kultura azalekoan nagusitu izana? Ez da izango igoal iruditeria guzti hori termino historikoetan berriki asmatutakoa delako horren naturalki pop masen kulturaren integratu izana?

44.- Nazionalismoak nazioarteko kooperazioa eta erakundetzea oztopatu egin ohi du.

Gure aroan komunikabide sareek, globalizazio ekonomikoak, migrazio masiboek eta korporazio teknologikoen jarduerak besteak beste planteatzen dituzten erronkei ezin diete estatuek beren kasa aurre egin, estatua nazionalisten eta bereziki askapen mugimenduen ametsen protagonista bakarra eta nekosoa izaten jarraitzen duen arren.

Hogeigarren mendean hasi zen nazioarteko erakundetze planetarioa (Nazio Batuekin eta horrekin lotuta dauden erakunde sektorial eta berezi guztiekin) eta erregionalak martxa sendo baina geldiezin batean sendotzen eta garatzen joan dira eta doaz. Egia da sarritan erakunde horiek egitura burokratiko eragingabeak bihurtu direla, errealtatea aldatzeko gaitasun eskasa agertu dutenak, horietako kasurik lazgarriena kasko urdinen interbentzioak direlarik, guda bakar bat ekidin ez dutelako eta itxura egiteko besterik ez direlako azaltzen gehienetan paisaia (ez beraiei erruz, laguntza humanitarioa banatzeaz aparte ezein kasutan ezer ez egiteko agindu zehatzak eta biribilak jasotzen dituztelako baizik ia beti, eta ez dezala inork galdetu orduan zertarako bidaltzen dituzten).

Hala eta guztiz ere, ia hamarkada bakoitzean aurrerapenak egiten dira estatuen arteko batuketan, hala nola Mercosur-en sorrera (Argentina, Brasil, Uruguai eta Paraguai biltzen dituen merkataritza libreko zonaldea sortzen duena, parlamentu propio batekin, 1991), North American Free Trade Agreement - Naftaren sorrera (Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna, 1994, Mexiko, Kanada eta Estatu Batuak biltzen dituenak), Milurtekoko Garapen Helburuen Ituna (2000), Nazioarteko Zigor Gortearen sorrera (2002), euroaren sorrera estatuen gaindizko moneta bezala (2002), orain arte hogeitaz estatu biltzen dituenak, Europar Batasunaren zabalpena hamabi kideetik hogeitaz zapi (1986-2013, hogeitaz zortzi izatera iritsi ziren baina Erresuma Batuak alde egin zuen 2020an), Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa (2006) eta abar luze bat, martxa geldiezin batean.

Zergatik integrazioa ez duen bizkorrago aurrera egiten eta pauso bakoitzak hainbesteko lana eskatzen duen? Nazionalismoarengatik. Zergatik giza eskubideak aldarrikatzen dituzten itunak indarrean sartu eta urte asko geroago (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 1948) sinatu zuten estatu dezentetan ez diren aplikatzen eta emakumeak, arraza batzuk, homosexualak eta gutxiengoak baztertuta eta zapalduta jarraitzen duten? Nazionalismoarengatik, salbuespen kulturalaren aitzakiapean salbutea. Zergatik Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966 biak) onartu ondoren aitortu zuten autodeterminazio eskubidea ez den aplikatzen sinatu zituzten estatuetan modu horretan gatazka berriak eraginez eta aurrekoak kronifikatuz? Nazionalismoarengatik.

45.- Subiranotasun kontzeptua hutsala da.

Antzinako Errejimenean subiranotasuna subiranoaren, hau da, monarkaren edo erregearen lur zati baten gaineko jabetza eskubidea zen, besterik ez. Iraultza burgesen eta nazionalistak (1789ko Iraultza Frantsesaren hasita eta 1848ko Nazioen Udaberria arte) errejimena aldatzea lortu zutenean estatuko luraren jabe formala nazioa izatera pasa zen. Nor zen nazioa? Herria. Nor zen herria? Denok, inor ez, denok eta inor ez.

Denona da estatuko lurra? Hori uste duenak, edo agintariek eta politikariek zein ondo kudeatzen duten jabe bezala denona-inorena dena, publikoa hain zuzen ere, ez dakienak egiatan inozoa dela esan dezake.

Subiranotasuna erregeei kentzea eta 'herriari' edo 'nazioari' ematea zio zilegi batek motibatu zuen, monarkek eta enperadoreek bake edo laguntasun itunetan lurraldeak bertako populazioaren adostasunik gabe (galdetu ere gabe, jakina) trukatzeko praktikarekin amaitzea, egiazko jabeak bertako herritarrek zirela azpimarratuz eta aldarrikatuz. Gaur egun, aldiz, printzipioa eta argudioa alderantzizkoa egiteko erabili egin ohi da, hau da, erregeek eta enperadoreek egiten zuten gauza bera egiteko, bertako biztanleei autodeterminatzen galarazteko hain zuzen ere, lurralde nazio osoaren eta herriaren (hau da agintariena eta ez beste inorena) delako aitzakiapean edo tesipean.

Eta era maltzur eta zapaltzaile horretan erabili ahal izateko iraganean kontzeptu demokratiko bat bezala aurkeztu eta sortu zena gaur kontzeptu autokratiko bezala sakralizatu egiten da, sakralizazio hori oso agerikoa delarik nazionalisten diskurtsoetan: zenbaitetan, Mendebaldeko herrialdeetan sakralizazioa konstituzionaltasunaren forma hartzen du, subiranotasuna (lurralde-integritate bezala ulertuta interpretazio maneiatu horretan) ezin du inork zilegiki kolokan jarri estatuaren konstituzioan -ustezko izkribu sakratua- dagoelako, konstituzioak uneoro aldatzen ez baldin balute bezala estatuetan; beste zenbaitetan kutsu sasi erlijiosoa urrutirago oraindik daramate nazionalista dogmatikoek, erabaki demokratiko baten posibilitatea erabat ukatuz, subiranotasuna (jabetza) herriari baitagokio uste horretan, bai, baina ez bakarrik herriaren gaurko belaunaldiari, belaunaldi guztiei baizik. Beraz, nola hildakoek ezin duten bozka egin eta etorkizunekoei iritzia galdetzerik ez dagoen, subiranotasunaz ezin da mintzatu ere egin eta kito.

Estatuak beren horretan hemen betidanik egon bailiran, edo nazioa zer den eta zer ez den, nor sartzan zen eta nor ez zen sartzan baten batek hautamenez erabaki izan ez balu bezala, mugak aldatu izan ez bailiran gerretan (aipatu besterik ez da behar 1917an 65 estatu zeudela munduan eta 2024an 193 estatu daudela). Ez dago diskurtso nazionalista dogmatiko bat osatzerik analfabeto historiko hutsa izan gabe edo gezur nabariak bata bestearen atzetik eskrupulurik gabe eta gorritu gabe botatzeko gaitasuna izan gabe.

46.- Kultura gutxituetako nazionalismoek estatu bat erdiesteko beharra aldarrikatzen dutenean estatu berri hori kultura bat bertako biztanle guztiei inposatzeko izaten da.

Ohiko elementu bat kultura gutxituetako nazionalismo askatzaileen erretorikan estatu berri bat eratzeko beharra da, jaso duten zapalkuntzatik (erreala eta ustezkoa) askatzeko eta galtzeko arriskuan edo desagertzeko zorian ere omen dagoen kultura babesteko. Arazoa zera da estatua eta boterea baliokideak direla errebindikazio horretan, eta babesa eta inposaketa baliokideak direla ere bai planteamendu horretan.

Zertarako behar dute estatuaren boterea? Ba bertako biztanle guztiei premia salbatu 'behar' den (nahi duten) kultura hori inposatzeko, lagun haiei galdetu ere egin gabe premia horrekin edota salbatu behar ezinbeste horrekin ados dauden eta prozesuan parte hartu nahi duten edo prest dauden, noski.

Nazionalista 'askatzaile' batek egungo egoera beste estatu baten zapalkuntzaren emaitza dela erantzungo dizu berehalakoan, eta beraz egungo egoera naturala ez denez ez dela zuzena aurreko inposaketatik abstraitzen den ikuspegi bat onartzea. Aurreko inposaketaren ondorioei aurre egiteko kontrako zentzuan inposaketa pixka bat zilegia dela hain zuzen ere, aurreko ustezko zapalkuntzaren eta diskriminazioaren aurka egiteko kontzako zentzuan zapalkuntza eta diskriminazio pixka kontrolatu bat zilegia dela egoera 'orekatzeko' edo (hori ustezko 'askatzaile' mugimendu gehienetan leku amankomun bat ohi da, hutsala, ergela, funtsik gabekoa eta bidegabea, diskriminazio onik ez dagoelako gizartean, ez negatiboa ez 'positiboa', are gutxiago 'mendeku' diskriminazioa ez denean zuzentzen ustezko zapaltzaileei haien ondorengoei baizik).

Hizkuntza gutxituen auzia har dezagun hizpide, euskara bezala. Hizkuntza horien gainbehera nazionalistek pairatutako zapalkuntzari eta debekuei leporatzen diete ñabardurarik gabe, baina egia historikoa gehienetan ez da horren sinplea izaten, eta errealitatean zapalkuntza eta debeku horiek ez dira ia inoiz ez arrazoi bakarra izan, gehienetan ez dira arrazoi nagusia izan, eta maiz ez dira garrantzizko arrazoi bat izan ere gainbeherarena.

Arrazoi nagusia bera izaten da kasu gehienetan, bertakoek zabalagotzat edo erabilgarriagotzat jotzen duten hizkuntza baten aldeko hautua egiten dutela historian zehar, belaunaldiz belaunaldi, bereziki berako eliteek eta horien eraginez besteak. Hori traizioa denik edo pekatu barkaezina denik? Ez dakit, hori juizio moral bat da, baina kontu honetan juizio moralak soberan daudelakoan nago, gai honetan moral bat ezartzerik bat baldin badago (horrenbeste pertsonen politika eta kultura moraletik bereizteko desgaitasuna, edo posizionamendu kultural eta politiko bakoitzaren atzetik juizio edo kondena moral bat botatzeko prestutasuna ez da ustezko moral horren existentziaren edo pertinentziaren frogarik, askoren umekeriarena baizik).

Erromatarrek adibidez horren jakitun ziren (gerokoak askoz ere adimentsuagoak gai honetan eta beste askotan) ezen ez zioten inori latina inposatu, konkistatu zuten herrialdeetako eliteek beren kasa eta beraien ekimenez ikasten utzi zuten baizik, prestigio hizkuntza bezala aurrera egiteko behar zena. Eta horrek azaltzen du ere zergatik Nafarroako Erresumako dokumentu ofizial guztiak

latinez edo gazteleraz idatzi zituzten eta ez euskaraz, baita euskaldunen arteko geroztikako dokumentu ofizial gehienak ere.

Hortaz planteatzen den galdera handia zera da, zilegia al da estatu bat eratzea gutxitua izan den kultura bat biztanle guztiei inposatzeko? Ez dirudi erantzuna baiezkoa denik, aurreko premisa ez delako egiazkoa: zuzendu nahi den aurreko inposaketa, zapalkuntza edota debekuak ez dira minorizazio prozesuaren kausa nagusia edo garrantzitsuena izan, edo ez nazionalistek salatzen duten heinean behintzat, historian hainbeste aldiz gertatu izan den bezala prestigio hizkuntza herrikoia ez izana baizik.

Beste maila batean, estatua tresna aproposa al da hizkuntza bat prestigiozkoa bihurtzeko? Bai eta ez, eta erantzuna estatu motaren arabera asko aldatzen da. Egia da burokraziak eta mintzaira administratiboak prestigio ematen diola hizkuntza bati, eta komunikabide publikoek eta hezkuntza sistema publikoek (zer esanik ez errejimen totalitarioetan) prestigiorik handiena ematen diotela ere hizkuntza bati, baina botere publikoak ez dira prestigio iturri bakarra, mundu akademikoaren jarduna, literaturak, eta goi klaseen usadio era erabilerek, baita modek ere prestigio iturriak dira estatua eta bere praktika ofizialak behar ez dituztenak eragina izateko edo, are gehiago, estatuaren praktika ofizialetatik mintzairan nahita aldentzeagatik eragina eta prestigioa hedatzen dituztenak.

Dena dela eraginkortasuna ez da hemen aztertzen ari garena, zilegitasuna baizik, nazionalistek estatu bat errebindikatzeko erabiltzen duten argudioa kultura eta hizkuntza bat salbatzeko ezinbestekoa omen delakoan eraginkortasunean datzalako adierazten duena hain zuzen ere.

Beraz, eta termino horietan, zilegia al da estatu bat eratu edo eskuratu nahi izana biztanlegoaren bizitza hobetzeko eta hobetzen laguntzeko beharrean talde baten (talde hori gehiengoa den kasuak barne) ingeniartza sozialeko proiektu bat gainontzeko biztanleei inposatzeko tresna bezala erabiltzeko helburu soila edo nagusiarekin? Hizkuntzaz eta kulturaz ari gara, jakina, baina ingeniartza soziala da finean eta kulturak oro har gizartearen jarduera guztiak barne hartzen dituzte.

Auzi honetan bereziki ikusgarri bihurtzen baita zenbateraino ideologia nazionalistak intrusiboak eta homogeneizatzaile izan diren eta diren, eta zer errespetu gutxi agertzen duten beraien proiektu hiperboliko kolektiboetan pertsona banakoaren askatasunarekiko.

47.- Nazionalismoak populismo bihurtzeko joera nabarmena agertu ohi du.

Herriaren 'kontzientzia nazionala' iratzartzeko (nazioaren asmakizuna saltzeko), sostenguaren eta oihartzunaren bila eta hauteskunde merkatuko lehian aukerak izateko asmoz, nazionalistek diskurtsoa entzuleen gustuei, beharrei eta nahiei egokitzen saiatzen dira, jakina, eta herriaren sakralizazioa mentalitatearen ardatz egiten duen ideologia batentzat harritzekoa ez denez, populismoaren tentazioa handiegia izaten da beraientzat.

Izan ere nazionalismoa berez eta izatez populismotik gertuegi dago, eta uztartu direnean edo nazionalismoaren diskurtsoa erregistro populistak batera jaitsi denean (nazien kasuan adibidez) edo erlijioarekin edo beste ideologia muturrekoekin nahastu denean ondorioak eta kalteak ikaragarriak izan dira.

Historiari nahiz egungo egoerari begiratu bat besterik ez da bota behar ohartzeko zenbateraino mugimendu nazionalistek ezaugarri populistak agertzen dituzten:

- a) Irudimenezko iragan irreal baten nostalgia.
- b) Buruzagitza karismatiko bat.
- c) Krisialdien eta egungo ustezko gainbehera esajeratzeko joera.
- d) Erretorika hiperboliko bat erabiltzeko joera.
- e) 'Engainuaren' tesiaren erabilera, hau da, mezua plazaratzea zeinaren arabera eliteek herria engainatzen omen duten arazoak egiatan diren baino konplexuagoak direla esanez, benetan sinpleak omen diren bitartean eta arazo horiek konpontzeko hartu beharreko neurriak ustez oso sinpleak omen izanik ere (gehienetan errua atzerritarrei eta etorkinei leporatzea).
- f) Xenofobia.
- g) Antiintelektualismoa eta antielitismoa, herrikoia goraipatzea eta akademikoaren errefusa.
- h) Herriaren ustezko bertuteen goraipatze jarraia eta gai horren inguruan imajinario bat eta iruditeria baten sorrera.
- i) Erakunde liberalekiko eta beraien elkarren arteko kontrolekiko eta kontrapisuekiko mesfidantza eta mespretxua.
- j) 'Demokrazia bahituta'ren tesiaren erabilera, hau da, mezua plazaratzea zeinaren arabera hauteskundeetan hautatutako gobernu legitimoak demokrazia edo 'sistema' herriarengandik demokrazia bahitu omen duen, herriak zuzeneko demokrazia eta iritzi ematea galaraziz (azken hori zehazki zertan datzan inoiz azaldu gabe, jakina).

Demagogia errekonozitzea ez da zaila izaten, eta suposatzen dituen arriskuak iragartzen ez da zaila izaten ere: demagogo populistek boterea eskuratzen dutenean, depresio ekonomikoaren harira esate baterako (1929koan gertatu zen bezala, eta 2008koan berriro gertatu izan den bezala ere), arazo ekonomiko eta sozialak esaten zuten baino askoz konplexuagoak izatea suertatzen dira beti, eta proposatutako neurri biribil sinpleekin konpondu ezinik bolada bat igaro ondoren 'salbatzaileak' biztanlegoaren faborea galtzen

hasten direnean atzerrikoei arazoan ardura leporatzea dator eta horren ondoren... auskalo.
Hurrengoa gatazkak eta gerrak izaten dira.

Arrazoi bat badago hogeigarren mendeko sarraski ikaragarri eta trauma guztien ondoren
demagogia merkea presente egoteko oraindik gure demokrazietan: funtzionatzen duela, eta
nazionalistek badakite.

48.- Agintariek diskurtso nazionalistak erabili ohi dituzte baliabide bezala gaitasun eza eta gabezia sozialak estaltzeko.

Erretorika nazionalista zerbait baldin bada sinplea eta merkea da. Edozein arazoren aurrean 'gu' eta 'haiek' terminoetan erantzun bat artikulatzen eta botatzen du, arazoa bera bere horretan tratatzen saihesteko, eta baliabide demagogikorik errazenak erabiltzeko joera du: konparaziozko agrabioak eta kanpokoei (nazioarteko testuinguruari argudioaren bertsio sofistikatuan edo dotorean) errua leporatzea batik bat.

Kezko hesi batez mintzatzea kasu honetan ez da esamolde aproposa, ez delako noizean behingo maniobra bat, kudeaketa publikoan munduko bazter guztietako gobernuen jardunaren (gaitasun eskasa, garbi esatearren) esposizio gardenen bi mendez galarazi duen lanbro iraunkor bat baizik, oso erraza eta eraginkorra bilakatu baita arazoak, akatsak eta miseria gorriak banderarekin estaltzea.

Elementala eta apur bat tentela ematen duen arren, jende askok erosten du demagogia mota hori, eta deklarazioak eta erantzunak gurutzatzen hasten diren ahala eta polemika nazionalista hutsalak kiribiltzen doazen ahala printzipioz zabor hori jango ez zuketen hiritar kritikoek ere azkenean posizionamendu bat hartzera nonbait behartuta edo herrestan eramanak sentitzen hasten dira eta noski, gutarren eta besteen hautatzera jarrita...

Gizakiak berez daukan bizirauteko instintuaren sublimazio kolektiboari deituz, aberria arriskuan dagoela adierazteko errealitatean aurkezpena manipulatu eta apaindu egiten da, hil ala biziko erronka tragiko bat bezala azalduz, eta defendatzeko premia emozioen bidez herritarrei transmititu egiten zaie. Zer axola dute miseria batzuk, garapen ekonomiko eskasak eragindako pobrezia, gutxiengo batzuen zapalketa, ustelkeria, ingurugiroaren hondatzea, kriminalitatea edo antzeko txikikeriak aberria defendatzeko behar larriaren alboan?

Era horretan, eta Antzinateko jainko odoltsuen modura, nazionalismoaren erlijioan (zeinaren katixima umeei hasieratik buruz irakasten zaien, daukaten guztia, bizitza barne, ama aberriari zor dietela jakinaraziz alegia) ustezko nazioaren destino historikoak interes eta kezka pertsonal guztien sakrifizioa behar du mundua ezagutzen dugun bezala gal ez dadin, eta horrekin bat ez datorrena lehenik burukoi bat da eta bigarrenik traidore bat izatea leporatzen zaio.

Horrela, berritsukeriaren eta demagogiaren magiaz, gizakiekiko ardura naturala agertzen dutenak edo estaltzen saiatzen den ustelkeria, atzerapena edota aginpiderik eza salatzen jarraitzen dutenak azpisuge batzuk izatera pasatzen dira, beraien buruan bakarrik pentsatzen dutenak.

Nazionalismoa itsasgoran dagoenean ez da batere erraza gizasemea izatea, eta are gutxiago herritarra.

49.- Nazionalismoak nazioa herriarekin identifikatzen du baina baliokidetasun hori ez da egokia.

Herrigune batzuek ondasun komunalak dauzkate, herri-mendiak edo dena delakoak. Norenak dira ondasun horiek, udalarenak (herritarren ordezkari-tza legal abstraktua) edo bizilagun guztien biltzarrenak?

Nazionalismoarentzat nazioa, lurralde zati bat bezala ulertuta, herria da, eta lurraldea herriarena da. Nazioa eta herria gauza bera dira orduan?

Nazionalistek ez dute nazioa eta herria bereizten, baina hori nazionalismoaren historiaren ondorioa da. Esan bezala, nazionalismoa hemezortzigarren mendeko Ingalaterran sortu ondoren Antzinako Errejimenaren aurkako iraultzetan hasi zen forma hartzen eta bereziki 1848ko iraultzaren ondoren (Nazioen Udaberria) garatu eta hedatu zen.

Iraultza horien xede eta lorpen nagusienetako bat monarkei (pertsone fisiko zehatzei) subiranotasun formala (lurraldearen eta estatuaren jabetza) kentzea eta nazioari (kontzeptu abstraktu bati, ustez herria ordezkatzeko edo islatzeko zuena) konstituzionalki ematea. Horregatik zinez eta zentzuz esatea badago fondoan nazionalismo oro monarkikoa dela, nazio bezalako definitutako herrialdeetan erregerik ez dagoen arren.

Nazionalistek egin zutena zera izan zen, monarkek Erdi Arotik eskuratzen joan ziren ahalmenak, eskuduntzak, botereak eta ezaugarriak, subiranotasuna barne, erregeak eta enperadoreak gabetu eta irudimenezko izaki izpiritual abstraktu bati, 'nazioa' deitu zutena, eman, eta egungo nazionalismoek eta nazionalistek ez ohartu arren egun ere mentalitate horretan murgilduta daude.

Nor da nazioa? Betikora itzultzen gara behin eta berriro, denok eta inor ez. Dena denona eta inorena da.

Baina ez dadin inor oker, artifizio mentala eta deskribatu dugun eragiketa konstituzional historikoa ez dira bakarrik erretorikoak ezta xaloak ere: diskurtso handiuste eta maltzur horrek, ordezkari-tza politikoaren fikzioarekin batera (ordezkari-tza zilegi bakarra aginduzko manamendua da, hau da, ordezkaria ordezkatuak kontsultatu ondoren haien jarraibideak betetzeko behartuta dagoen sistema, estatu txikienetan ere eta edonolako demokrazia garatuetan -zer esanik ez nazioarteko erakundeetan- hori betetzen oso zaila izaten den arren, operatiboa ez delako), agintari eta gobernu nazionalistek antzinako erregeek bezala jokatzeko ahalbideratzen du, hau da, lurraldearen eta estatuaren jabeak bailiran.

Herriaren izenean, hori bai, horrek baten bati kontsolamendua ematen baldin badio.

50.- Nazionalismoek garapena oztopatzen dute.

Nazionalismoek garapen ekonomikoa oztopatzen dute beren mugekin, aduanekin, arantzelekin, lizentziekin, baimenekin, sistema legal ezberdinekin eta zerga ezberdinekin pertsonen eta ondasunen zirkulazio librea galarazten. Globalizazioa ahal duten guztietan atzeratzen saiatzen dira eta maiz boikotatzen saiatzen dira. Estatuetan eta 'komunitate nazionaletan' sare klientelarrak, nepotismoak eta oligarkia estraktiboak sortzen dira beti (nazioarteko erakundeen giroan ere bai, edo gehiago oraindik, hori onartu beharra dago) lanaren eta merkatuaren joko garbiak lausotzen eta maneiatzen dituztenak.

Nazionalismoek garapen kulturala oztopatzen dute pertsonen, ideien, liburuen eta euskarri kultural eta artistiko materialen zirkulazio librea galarazten, baita hizkuntza nazionalak lehenesten (gogoratu besterik ez da behar latina unibertsitate guztien hizkuntza zen garaia, gaur arlo zientifikoan ingelesarekin gertatzen ari den modu berean). Bereziki, pertsonen zirkulazio librea ekiditez lagunen eta komunitateen arteko uztarketa, mestizaje eta hibridazio kulturalak urritzen dituzte nazionalistek, horrek sortzen litzaketen aberastasunak eta hazkundeak galaraziz.

Nazionalismoek garapen politikoa oztopatzen dute gatazkak etengabe eragiten, estatuen arteko batuketa edota kooperazioa zailtzen eta eragozten, nazioarteko erakundeen eta auzitegien ebazpenak ez betetzen, eta herritarrei heziketa kosmopolita bat eman beharrean heziketa nazional bat emanez zatiketa, nazionalkeria eta tribu izpiritua mantentzen saiatzea helburu duena.

Nazionalismoek garapen morala oztopatzen dute jende ezberdinen arteko elkar ezagutzea eta elkartasun loturak eratzea galarazten. Zitalki oraindik, ez dago nazionalismorik 'bestearen' eraiketa kontzeptualik gabe (bere aldetik 'gure' kontzeptualki eraikitze ezinbestekoa), eta bestea, desberdina, arrotza bezala seinalatuz askotan errealak ez diren urruntasunak sartzen dizkiete herritarrei buruan uneoro.

Nazionalismoek garapen eta hazkunde pertsonala oztopatu egiten dute gizasemei egiazko esanahirik gabeko etiketak jartzen, herritarrei eta bereziki aktibistei eta militanteei ustezko berariazko ohitura zaharrak (gehienetan berariazkoak ez direnak eta ia inoiz ez zaharrak) daukatena baino balio gehiago ematen irakasten eta eskatzen, probintziakerietan bizitza denbora xahutzen eragiten, pertsonak zer diren eta zer ez direnei buruzko inolako funtsik edo interesik ez duten neura identitarioak eragiten, ezagutzen ez dituzten lagunak beren jatorriarengatik gorrotatzen edo ekiditen, eta kasurik okerrenean gerratan pertsonak elkar hiltzera, zauritzera edo dena galtzera eramanez, denon kalterako.

Nazionalismoen iraupena

Batzuen ustez nazionalismoa gure aroan bertan sortu, garatu eta sendatzen ari den gaitz politikoa da, XVIII. eta XIX. mendeetan liberalismoaren harira piztu zena (Sabino Arana berak eta euskal abertzaletasunak euren ideologia karlismoarekin eta tradizionalismoarekin lotzen oker saiatzen ziren arren), estatu nazio nagusien sorrera eta eraikuntzarekin (beren muga fisikoen barrura geratu ziren beste kulturen kaltean) nonbait osatzen joan zena, eta gainmodernitatean gizabanakoaren mailakako emantzipazio orokorraz, gainegitura mentalen eta sinesmenen dekonstrukzioaz eta globalizazioaz astiro disolbatzen ari dena.

Hortaz, batzu horien ustean epe luzean nazionalismoa produktu kultural irol gisa desagertzen joango litzateke eztabaida publikotik eta merkatu ideologikotik, horrela deitzearren.

Funtsik gabeko ustea da nire aburuz halere, arriskutsua suerta litekeena sentimendu nazionalistak kudeatzeko gure kulturak asmatu dituen tresneriak eta moldeak galtzera eraman zezakeen heinean.

Nazionalismoa zentzu zabalean ez delako modernitatearen albo ondorio bat, betidanik eta, onerako edo txarrerako (berdin dio ez dagoelako gure esku), betirako gizasemearen bihotzean ernamuinduko den pasio bat baizik.

Bakar batzuek inperioen aroa nolabait gaitzesten dugula, estatu nazioak kultura gutxituekin intoleranteak eta integratzaileak izan diren bitartean inperioak gehienetan toleranteak eta adeitsuak izan zirelako?, jakina, neu aurrena, baina ez gaitzezen nahastu, behinolako inperio handien tolerantzia eta begirunea ez zetorren agintarien eskuzabaltasunetik edota zuzentza zentzutik, pertsona desberdin eta herri askoren gainetik boterean aritzeko eta agintaritza mantentzeko sen onetik baizik, herri haien kulturen eta eguneroko bizitzan behar baino gehiago ez sartzeak errazten zuelako boterearen ariketa huts eta biluzia (horregatik inperioen tolerantzia fenomeno ia unibertsala bihurtu zelarik). Herritarrek eta herrien nahiek balio politikorik ez zeukatenean aniztasun kulturalak ez zuelako inolako erronkarik suposatzen agintarientzat.

Liberalismoak Antzinako erregimenaren desagerpena eta hiritarrari bere iritzi politikoa adierazteko askatasuna eman zionetik oinezkoa bere nazionalismoa agertzen hasi zen modu batean edo bestean, eta beraz ez da bakarrik liberalismoa nazionalismoaren aita dela, ama ere zera dela baizik, liberalismoak ekarri zuen libertatea eta zehazki adierazpen askatasuna (gurean, hain zuzen ere, Espainiako 1876ko Konstituzioak eratu zuen 1876-1923 arteko sistema sasi demokratikoak ahalbideratu baitzuen euskal nazionalismoren sorrera, baita katalana eta galegoa ere).

Eta etorkizun hurbilari eta urrunari begira hiritarrari eskubide politikoak kenduko ez zaizkion bitartean, eta horrenbeste utopia eta distopia teknologiko-totalitario etengabea plazaratu arren ez dut uste hori gertatuko denik, gizabanakoak bere nazionalismoa agertzen jarraituko du ausaz talde-zentzua izateko biologikoki programatuta gaudelako garen abere soziala bezala.

Historiak erakusten baitu zibilizazioaren martxaren norabidea zein den, baita nazionalismoen elkarrekintzak kudeatzeko, neurri batean bederen gainditzeko eta elkartzeko, baliabideen galerak edo ahanzturak eragin zitzaizketen ondorioak ere.

Europa media

Europa ez da nazio bat hizkuntza nagusi bat ez daukalako, eta ingelesa izatekotan Estatu Batuekin partekatzen duelako. Ingelesa azkenean nagusitzen bada dêmos handi baten zatiketaren inpresioa emango du (egiatik ez oso urrun), Erroma Mendebaldeko eta Ekialdeko inperioetan erdibituta egon zenean bezala, edo Amerikako koloniak europar metropoliengandik banandu zirenean eta identitate bat berehalakoan eraikitzeke -iragana oso zaila da aurreikusten, sobietarrek zioten moduan- beharrean ibili zirenean bezala (indigenen iruditeria erabiliz gehienetan, maiz independentzien aurka borrokatu zuten eta errepublika berriek metropoliak baino askoz gogorkiago zapaltzen hasi ziren indigenena hain zuzen ere).

Hori gertatzen baldin bada ez da zaila iragartzen zein albo ondorio lekarke, Europako herriek nonbait bereizteko eta euren nortasunari heldu nahian berariazko hizkuntzei atxikiko lieketela nazio orokorraren sorreraren kaltetan hain zuzen ere.

Europar Batasuneko esperientziako hirurogeita hamar urte pasata, zeinetan europar erakundeek gabezia demokratikoak eta urruntasuna (herritarren haiekiko interes faltaz akaso) eta hautatzeko gardentasunean hutsune nabarmenak agerian geratu diren, zergatik ez al da epe luze historiko horretan iritzi publiko europar bat osatu? Edo, gure garaiko pentsatzeko ildotik jarraituz, norena da errua?

Erakunde europarrek ez dute lagundu, jakina, Europako Parlamentuak, ordezkariak eta bozeramaileak diskurtsoetan eta prentsaurrekotan, hitzontzikerietan eta erretorika goratuan milaka ordu gastatu arren, ez dute errealtatea apaintzen eta saltzen asmatu eta ez dut uste pertsona heldu askorik gelditzen denik Europar Batasuna estatu eta gobernu klub bat besterik dela sinesteko inozo adina.

Baina herritarrok ere gure ardura daukagu, jakina, geure burua Europa politikoaren eratzearen subjektu papera esleitzen digun errelato demokratikoa erosten dugun heinean batez ere.

Karl Deutsch-en proposamena onartuz nazioak finean komunikazio-komunitateak direla adosten badugu, zeintzuk komunikabidek eta denok uler dezakegun zein hizkuntzatan hedatuak ba al daukagu partekatzea nolabaiteko iritzi europar bat zinez osatzeko modukoak? Noren esku utziko dugu hori? Europar Batasuneko erakundeenetan (estatuetakoa gobernuenetan)?

Ez dirudi orain arte norberak dagokion ardura bere gain hartu duenik, eta gobernuen interesak zertan gobernuen zeregina izan behar.

Erromantizismoaren hordialdia

Zer on ekarri du erromantizismo alaeak, aro modernoko balioen inbertsio handia, Gizateriarentzat eta bereziki kultura mendebaldarrentzat (zer esanik ez Euskal Herriarentzat)? Eta ez naiz erromantizismo herrikoiak egunero uzten dituen zabor tonez ari bakarrik, Erromantizismoak prozesu historiko zabal bezala eragin dituen zibilizazioaren eta gure gogoen eztandaz ere baizik.

Goetheren Werther-en ereduari jarraiki gazte grinatsuak dozenaka beren buruaz beste egiten hasi zirenetik Alemanian (suizidioaren izaera kulturala eta kutsakorra azaleratuz) gaur arte maitasunarekiko eta heriotzarekiko liluramenduak edo setak, Freud-en eros eta thanatos, alienatuta gauzkate ia erabat, edo hein handi batean baldintzatuta gutxienez, erlijiotik eta ameskeria erromantikotik eta bere albo ondorioetatik, nazionalismotik eta amodio erromantikotik, askatu ezinik, iratzarri ezinik, heldu eta hazi ezinik.

Okerrago oraindik, behar ez ditugun hiru pisu edo hiru superstizio horien inguruan antolatu ditugu gure bizitzak eta gure elkarbizitzak, familiak osatzetik egitura kulturaletaraino oro har, iruditeria osoa, erreferente eta paradigma gehienak. Berrehun eta berrogeita hamar urte erlijioaren, amodio erromantikoaren eta nazionalismoaren diktadurapean, bi mende eta erdi. Sinestezina.

Sentimenduen, zirrararen eta emozioen bilaketa etengabea bihurtu direlarik bizitzaren xede nabarmenena bailiran eta gizakiaren esanahiaz bere buruari planteatzen dion galderaren erantzuna.

Eta ez pentsa mega alienazio horietatik askatzeko edo esnatzeko bidean gaudela, begiratu besterik ez dago emozioen “kudeaketaren” eta auto laguntzaren inguruko uholdea masen kulturaren edo sentimenduen hipertrofia eta hiperbalorazioa sasoi ilunotan.

Edo “errelato” batean edozein datu edo mezu garatu dugun eta nagusitu den bildu beharra, istorio batean bilduta jaso ezean ezer ulertzeko gauza ez bagina bezala edo egia opari bat bailitzan zeinean paper ederrak edukiari zentzua emango liokeen, edo errelato horiei nonahi ematen zaien berebiziko garrantzia, edo idealismo naifak emozioak eta sentimenduak bideratzeko edo sublimatzeko proposamen bakarra plazaratzea uneoro eta arlo gehienetan.

Zakar guzti hori eta baldintzapen zikiratzaile hori al da gure seme-alabei lagako diegun jarauntsia? Beste behin? Nik Atenaseko bi milurteko t’erdi dauzkan Kerameikos kanposantua gustukoagoa dut hemeretzigarren eta hogeigarren mendean eraiki genituen hilerri guztiak baino. Doanak geratzen diren ahaideei edota lagunei eskua ematen hilarrien irudietan, aingeru negartsu, gurutze sakrifizial, bihotz sutan eta minaren eta sufrimenduaren oroigarri eta gorespen guztiak baino.

Gibel solas gisa

Egungo perspektibatik ikusita nazionalismoak gainditzea ez dirudi epe laburreko edo ertaineko kontua izango denik, eta ez dirudi globalizazioaren (bolada honetan gainbeheran dagoena bide batez esanda) indarrak berez sentimendu nazionalistak ahaztea ekarriko duenik, ez hurrengo hamarkadetan behintzat. Baina nork daki.

Gizateriaren bilakaera, eta bereziki historia modernoak zerbait erakusten badute zera da, nonbait eta nolabait gizakiok beti aurrera egiten lortzen dugula, zerbait hobera jotzen dugula behin eta berriro noizean behin atzera egiten dugun arren jakina, eta horrez gain historia beraren abiadura gero eta azkarragoa dela, etengabeko azelerazio prozesu batean murgilduta gaudela.

Izan ere, pertsona arrunt baten bizitzako denboran mundua erabat aldatzen da, aro batetik bestera igarotzen dela ematen duelarik ia hamarkada bakoitzean haurtzaroko edota nerabezaroko mundua ezagutezina eta erabat ahaztuta urruntasunean gelditu arte.

Posible da orduan marxismoa dogmatikoa ia egun batetik bestera zaharkituta geratu zen modu berean nazionalismoa ere faktoreren edo gertakariren baten eraginez (beste mundu gerra bat, adibidez, espero dezagun gertatuko ez zena) atzean uztea, baina ez dirudi hori geratuko denik. Beraz, eta aro berri bat heltzen den bitartean, nazionalista zibilizatuak ikasi beharra daukagu bederen, globalizaziorako bide itzulezina hartuta duen mundu batean kulturen eta komunitateen arteko elkarrekintza baketsua ahalbideratzeko, kontuan izanik batik bat elkarbizitza hori fisikoa dela gero eta gehiago, herri eta hiri berberetan gauzatzen dena.

Ondorioz proposatzera ausartzen naiz ondoko lau betebeharrak edo lau egia biribilak onartu eta aitortu beharrekoak nazionalista zentzuduna eta zilegia izateko:

a) Denok tximu berberengandik gatzela, bidegurutzeetan tribuetan edota nazioetan bananduz joan zirenak, batzuk bide batetik abiatuz, beste batzuk beste batetik.

b) Mundu honetako txoko eta bazter oro gizaki guztion jabetza dela ez beste inorena.

c) Nortasunak, mugak, banderak eta herriak ideiak besterik ez direla gure gogoan bizi direnak eta beste inon ez. Ez daude naturan, ez dakartzagu gatozenean eta ez daramatzagu goazenean.

d) Nazionalismoak sedentarismoaren albo-ondorioak direla; ehiztari-biltzaile, artzain edota merkatari nomadak ginenean lurraren gaineko jabetza sentimendu kolektiborik edo nazionalismorik ez zegoela, ezta ekoizkin mental horiek sortzeko aukerarik ere.

Lau egia horiek onartuz edo aitortuz gero aurrera.

Zenbait aipu

“Egiazko filosofoarentzat lur oro aberri da”. Giordano Bruno.

“Patriotismoa gizatxarren azkeneko babeslekua da”. Samuel Johnson.

“Harropuzkeriarik merkeena harrotasun nazionala da, sentitzen duenarengan dohain pertsonalen falta salatzen du”. Johann Wolfgang von Goethe.

“Nazio bat bere jatorriei buruzko akats batek batzen duen komunitate bat da, bizilagunekiko partekatzen duten gorrotoak mantendua”. Ernest Renan.

“Ondo jakina da zientzia eta nazionalismoa kontraesanean dauden gauzak direla, politikako diruzaleek noizean behin jakinduria hori ukatzen duten arren: halere eguna etorriko da zeinetan azkenik goi kultura hesi nazionaletan itxita mantentzeak kaltetzen duela ulertuko dugun”. Friedrich Nietzsche.

“Nazionalismoak ez ditu ez askatasuna ez prosperitatea helburu, aldiz, behar izatekotan biak eraikuntza nazionalaren beharren mesederako sakrifikatuko ditu”. Lord Acton.

“Nazionalismoa historia txarraren indigestioek asaldatutako burubero galdu batzuen erokeria da”: Miguel de Unamuno.

“Nazionalismoa pesterik okerreina da, gure kultura europarraren lorea pozoitzen duena”. Stefan Zweig.

“Nazionalista bakoitzak iragana aldatu daitekeela uste du. Bere denboraren zati bat fantasiako mundu batean ematen du non gauzak behar bezala gertatzen diren -non adibidez Espainiako Armadak arrakasta lortu zuen edo Errusiako Iraultza zapaldua izan zen 1918an-, eta mundu horren pasarteak ahal izango duen guztietan tartekatuko ditu liburuetan”. George Orwell.

“Nazionalismoak ez ditu baieztapenak besterik onartzen, eta zalantza edo aurkaratzea baztertzen dituen dotrina oro fanatismo eta ergelkeria mota bat da”. Jorge Luis Borges.

“Mugak historiaren orbanak dira”. Robert Schuman.

“Historia ideologia nazionalisten, etnikoen edo fundamentalisten lehengaia da, lo- belarrak heroinaren menpekotasunen lehengaia diren modu berean”. Eric Hobsbawn.

“Aberriarenganako amodioak ez ditu besteen mugak ezagutzen “. Stanislaw Lem.

“Hemeretzigarren mendeko nazionalismo askatzailearen intolerantziarako eta zapalkuntzarako deriba ziurenik hasiera batetik bere proiektuaren anbigutasun politikoan zetzan”. Javier Pradera.

BIBLIOGRAFIA

- ÁLVAREZ JUNCO, José. Dioses útiles. Naciones y nacionalismos. Galaxia Gutemberg. Madril. 2016.
- ANDERSON, Benedict. Imagined Communities. Reflections on the Origin and Spread of Nationalism. Verso. New York. 2016.
- AZURMENDI OTAEGI, Joxe, Volkgeist-Herri Gogoa. Ilustraziotik nazismora. Elkar. Donostia. 2007.
- BERLIN, Isaiah, Sobre el nacionalismo. Textos escogidos. Página Indómita. Bartzelona. 2019.
- BILLIG, Michael. Banal Nationalism. Loughborouh University. Loughborough. 1995.
- COLOMER, Josep. Contra los nacionalismos. Anagrama. Bartzelona. 1984.
- CONNOR, Walter. Ethno Nationalism. The Quest for Understanding. Princeton University Press. Princeton. 1994.
- DELANNOI, Gil eta TAGUIEFF, Pierre André. Théories du nationalisme. Nation, nationalité ethnicité. Editions Kimé. Paris. 1991.
- FUSI AIZPURUA, Juan Pablo. La patria lejana. El nacionalismo en el siglo XX. Santillana. Bartzelona. 2004.
- GELLNER, Ernest. Nations and Nationalism. Blackwell publishing. Hoboken. 1983. Nazioak eta nazionalismoa. Klasikoak. Bilbo. 2009.
- GRAY, John. The Silence of Animals. On Progress and other Myths. Farrar, Strauss & Giroux. New York. 2014.
- HOBBSAWN, Eric. On nationalism. Abacus. London. 2022.
- JAUREGUI BERECIARTU, Gurutz. Contra el Estado-nación. Contra el hecho y la cuestión nacional. Siglo XXI. Madril. 1986.
- KYMLICKA, Will, Multicultural Citizenship. A Liberal Theory of Minority Rigths. Oxford University Press. Oxford. 1996.
- NUSSBAUM, Martha. For Love of Country. Debating the Limits of Patriotism. Beacon Press. Boston. 1996.
- ODRIOZOLA LIZARRIBAR, Joxe Manuel. Nazionalismoaren alde eta aurka. Elkar. Donostia. 2024.
- ORWELL, George. Notes on nationalism. The Orwell Foundation. www.orwellfoundation.com
- PÉREZ VEJO, Tomás, Nación, identidad nacional y otros mitos nacionalistas. Ediciones Nobel. Oviedo. 1999.
- RECALDE DÍEZ, José Ramón. La construcción de las naciones. Siglo XXI. Madril. 1982.
- RENAN, Ernest. Qu'est-ce qu'une nation? Calmann-Lévy. Paris. 1882. Zer da nazioa? (Sarrera eta itzulpena Esteban Antxustegi Igartua). Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo. 2004.

SYKES, Bryan. The Seven Daughters of Eve. The Science That Reveals Our Genetic Ancestry. WW Norton & Company. New York – London. 2001

ZABALTZA PÉREZ-NIEVAS, Xabier. Una historia de las lenguas y los nacionalismos. Gedisa. Barcelona. 2006.

Aurkibidea

Hitzaurrea

- 1.- Europar eta Ekialde hurbileko biztanle guztiok zazpi emakumeen herenilobak gara.
- 2.- Ez dago hizkuntzarik bata bestea baino zaharragoa denik, ezta kulturarik besteak baino zaharragoa denik ere.
- 3.- Arrazek ez daukate inongo estatus zientifikorik.
- 4.- Mundu honetan ez dago estatu bakar bat etnizitate bakarra duenik.
- 5.- Nazionalismo guztiak XIX. mendean sortu ziren liberalismoaren eraginez.
- 6.- Historiak erakusten du orokorrean inperioak toleranteak izan direla gutxiengo etniko eta linguistikoekin, eta nazio-estatuak berriz intoleranteak izan direla.
- 7.- Nazionalismoek historian justifikatu ohi dute beren diskurtsoak, baina erabiltzen dituzten kontakizunak eta gertakari historikoak gehienetan gezurrezkoak eta maneiatuak izaten dira.
- 8.- Nazio bakoitzaren ezaugarri berezko gehienak mestizajearen fruitu dira.
- 9.- Gutxiengo nazionalak estatuez zapalduak izatea salatu dute ia beti, baina bere baitako gutxiengoei beren kultura eta hizkuntza inposatzen saiatu dira gehienetan.
- 10.- Estatu bat lortzeak ez du hizkuntza edo kultura gutxitu bat bizirautea bermatzen.
- 11.- Banderak, mugak, estatuak eta gobernuak izaki mental hutsak dira, besterik ez, naturan ez dira existitzen.
- 12.- Nazionalismoak iragana idealizatzeko eta etorkizunari buruz eszeptikoa izateko joera nabarmena agertu ohi du, eta beraz ideologia ezkortzat eta pesimistatzat har dezakegu orokorrean.
- 13.- Nazionalismoak ideologia biktimistak izan ohi dira.
- 14.- Nazioen ikurrek antzinakoak izan nahi dute baina XIX. mendean asmatu zituzten gehienak.
- 15.- Nazioak ez dira historikoki lehenengo talde identitate erreferenteak, aurretik familiak, tribuak, klanak eta gens-ak egon ziren.

- 16.- Mundu honetan ez dago talde etniko 'garbirik', eta ez dago mestizajearen emaitza ez den herririk.
- 17.- Nazioak oso zailak dira objektiboki definitzen, eta ondorioz autodeterminazio eskubidearen subjektua zein den zaila da juridikoki zehazten.
- 18.- Nazionalistek herrien esentzia kolektiboan, nazioen ariman eta antzeko superstizioetan sinistu ohi dute.
- 19.- Batek ez du aukeratzen zein kulturatan edo zein komunitatean jaiotzen den, eta beraz horretaz harrotzea zentzugabea da.
- 20.- Nazionalismoek maiz xenofobia eta gerra odoltsuak eragin dituzte.
- 21.- Nazionalismoek giro kulturala pobretu ohi dute.
- 22.- Ez dago gu bat definitzerik, nazionalismoak egiten duen moduan, besteak baztertu gabe.
- 23.- Arranoak eta sugeak.
- 24.- Nazionalismoak gizabanakoaren askatasuna murrizten saiatzen da.
- 25.- Nazionalismoak partikularismoak exageratzen ditu eta garrantzitsuak bailiran saltzen saiatzen da.
- 26.- Nazionalismoa erromantizismoarekin lotuta dago sortzez eta irrazionalismoz josita dago.
- 27.- Historiak nazionalismoa gainditua izango dela erakusten du.
- 28.- Nazionalismoa alienagarria da.
- 29.- Kulturak eta identitateak ez dira estatikoak dinamikoak baizik, eta disolbatzeko prozesu etengabe batean murgilduta daude.
- 30.- Kolaboratzea eta batzea izan dira historiaren motorrak, ez urruntzea ezta isolatzea ere.
- 31.- Nazionalismoa ideologia bezala emozioetan oinarritzen da gehiago pentsamenduan baino.
- 32.- Nazionalista izateak isuri kognitiboekin baldintzatzen ditu errealitatearen hautematea eta erabakiak hartzea.
- 33.- Nazioek ez digute nortasuna edo izaera ematen.
- 34.- Nazionalismoak sortzen duen genealogia sentimendua fantasiakoa eta iruzurrezkoa da.

- 35.- Nazioa elkarte natural eternala baldin balitz ez luke estatu baten beharrik izango gauzatzeko.
- 36.- Nazionalismoak autarkiaren posibilitatean sinistu ohi dute, utopia fantastikoa den arren.
- 37.- Inposaketa nazionalismoaren ardatza da.
- 38.- Teoria nazionalistaren arabera nazioek estatuak sortzen dituzte, baina praktikan kontrakoa gertatzen da, estatuak nazioak sortzen dituztela.
- 39.- Herri bat etorkizunean handia izan daitekeelako sinesteko iraganak ez du ezer frogatzen edo baldintzatzen.
- 40.- Nazio-estatuak ez du frogatu egitura aproposa denik ere giza-bikaintasunera iristen laguntzeko.
- 41.- Nazionalismoak norberaren komunitatearekiko leialtasuna printzipio unibertsalak baino garrantzitsuagoa dela defendatzen du.
- 42.- Nazionalismoak errealak ez diren arketipoak asmatzen xahutzen dute adimena eta energia.
- 43.- Nazionalismoa horren hutsala da pop kulturen naturaltasun osoz integratu dela.
- 44.- Nazionalismoak nazioarteko kooperazioa eta erakundetzea oztopatu egin ohi du.
- 45.- Subiranotasun kontzeptua hutsala da.
- 46.- Kultura gutxituetako nazionalismoek estatu bat erdiesteko beharra aldarrikatzen dutenean estatu berri hori kultura bat bertako biztanle guztiei inposatzeko izaten da.
- 47.- Nazionalismoak populismo bihurtzeko joera nabarmena agertu ohi du.
- 48.- Agintariek diskurtso nazionalistak erabili ohi dituzte baliabide bezala gaitasun eza eta gabezia sozialak estaltzeko.
- 49.- Nazionalismoak nazioa herriarekin identifikatzen du baina baliokidetasun hori ez da egokia.
- 50.- Nazionalismoek garapena oztopatzen dute.

Nazionalismoen iraupena

Europa media

Erromantizismoaren hordialdia

Gibel solas gisa

Zenbait aipu

BIBLIOGRAFIA

Aurkibidea